



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 15a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena (2002-2014), Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena (2002-2014), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioari buruzkoa (2002-2014), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Itoitz-Nafarroako Ubidea
Fundazioari buruzko fiskalizazio
txostena (2002-2014),
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Fundazioaren ezaugarri nagusiak (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Itoizko Urtegiko ingurunearen garapen integralerako plana (7. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">II.3. Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioaren desegitea (12. or.).</p> <p>III. Helburua, norainokoa eta mugak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. Helburua eta norainokoa (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. Mugak (16. or.).</p> <p>IV. Iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa (17. or.).</p> <p>V. Fundazioak egindako kudeaketari buruzko ondorioak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Itoizko urtegiaren ingurunearen garapen integralerako plana (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Fundazioaren gastuak eta diru-sarrerak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Hurbilketa bat Itoizko Urtegiaren ingurune egoera sozio-ekonomikora (2002 eta 2014). (29. or.).</p> <p>VI. Amaierako ondorioa edo laburpena (33. or.).</p> <p>1. eranskina Fundazioaren balantzearen bilakaera eta galeren eta irabazien kontua 2002tik 2014ra bitartean. (35. or.).</p> <p>2. eranskina Fundazioak eginiko jarduketan laburpena 2002tik 2014ra bitartean. (37. or.).</p> |
|---|--|

I. SARRERA

Eledunen Batzarraren 2013ko uztailaren 1eko erabakiaren bidez, eta Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak eskatuta, Kontuen Ganberari eskatu zitzaion Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioaren fiskalizazio txostena egin zezan.

Aipatu eskaeran, zehazki, eskatzen zitzaion Kontuen Ganberari txosten bat egin zezan ondoko gaiei buruz: "*Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak garatutako jarduerak, haren finantzaketa, kudeaketa-eredua, egitura organikoa eta Fundazioaren helburuetara bideratutako baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia, haren sorreratik (2002)*".

Fundazioari dagokionez, eta aldez aurretik, komeni da bi kontu zehaztea:

- Defizit publikoko helburuak betetzeko Nafarroako Gobernuak 2011n ezarritako aurrekontu-doikuntzen ondorioz, Fundazioak utzi egin zion Gobernuarengandik funtsak jasotzeari, eta urte horretatik aurrera haren jarduera ia-ia etenda geratu zen.
- 2014ko urtarrilaren 17an, Fundazioaren patronatuak erabaki zuen hura desegin eta iraungitzea.

Hala ere, eskaera aurkeztu zuen parlamentu-taldeak hura berretsi zuen.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta Eledunen Batzarraren aipatutako erabakia kontuan hartuta, aipatutako fiskalizazio-lana Kontuen Ganberaren 2015eko jarduketa programan sartu da.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, Fundazioaren ezaugarri nagusiak azaltzen ditugu, bai eta haren jardueren plangintza eta iraungitzea ere. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa aurkezten ditugu, bai eta horretarako izan diren mugak ere. Laugarrenean, gure iritzia ematen dugu Fundazioaren urteko kontuei eta aplikagarri zaion legeria betetzeari buruz; bosgarrenean, Fundazioak eginiko kudeaketaren gainean ateratako ondorioak islatzen ditugu. Azkenik, seigarrenean laburpen edo amaierako laburbiltze bat ageri da.

Txostenak bi eranskin ditu:

- 1. eranskina Fundazioaren balantzearen bilakaera eta galeren eta irabazien kontua 2002tik 2014ra bitartean.
- 2. eranskina Fundazioak eginiko jarduketaren laburpena 2002tik 2014ra bitartean.

Azterketa-lana 2015eko otsailetik maiatzera bitartean egin du auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Lan egiteko orduan emandako laguntzagatik eskerrak ematen dizkiogu jada iraungitako Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioko zuzendariari eta haren patronatuaren idazkariari, bai eta Nasertic enpresa publikoari ere.

II. ITOITZ-NAFARROAKO UBIDEA FUNDAZIOA

II.1. FUNDAZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Itoizko urtegia Agoitz herritik gertu dagoen obra hidraulikoa da, Artzibar eta Longida ibarraren artean. Bere izena da urpean geratutako herrietako batena. 418 Hm³ ur pilatzeko ahalmena du.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko urriaren 15eko bileran, erabaki zuen Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazio "pribatua" eratzea, 300.506 euroko ekarpenarekin, bai eta haren estatutuak onestea ere. Fundazioa osatzen zuten, Nafarroako Gobernuaz gain —entitate fundatzailea zen alde tik—, Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluko udalek eta Ebroko Ur Konfederazioak.

Hona hemen Fundazioaren sorreraren arrazoa: "*Administrazio publikoen Nafarroan hasi dituzten azpiegitura-obra garrantzitsuak egiteak Administrazioaren esku-hartzearen behar berriak sortuko ditu, alde batetik, sor litezkeen zenbait desoreka sozial eta lurraldekoak konpentsatzeko, eta, bestetik, baliabideak aplikatzeko ekimen berrien esparru bat sortzeko; ekimen horien artean jasotzen dira ukituriko eskualdeen landa garapenera bideratutakoak, esparru guztietan*".

Laburbilduz, haren oinarriko helburua zen Itoizko urtegiaren inguruko landa-, natura- eta kultura-ondarea babestu eta sustatzea, bai eta eskualde horretako landa- eta nekazaritza-garapenerako, garapen turistiko eta azpiegituretarako eta prestakuntza eta enplegurako jarduerak sustatzea ere.

Gobernuaren 2002ko martxoko erabaki baten bidez aurreko estatutuak aldatu ziren, funtsean, Longidako udalerrria kanpoan uzteko, berak eskatuta, eta Nafarroako Gobernuaren ordezkari eta patronatuaren lehendakari gisa Ingurumeneko kontseilaria izendatzeko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ordezkari.

Fundazioaren eratzea 2002ko uztailean gauzatu zen eskritura publiko bidez.

Fundazioa denbora-mugarik gabe eratu zen, Nafarroako Foru berriaren edo Zuzenbide Zibilarren konpilazioaren 44. legearen babesean. Hala, irabazi-asmorik gabeko fundazio izaerako erakunde gisa eratu zen, eta haren ondarea era iraunkorrean zegoen atxikita erakundeak berezkoak dituen interes orokorreko helburuak gauzatzera. Fundazioaren egoitza Agoizko udalerrian zegoen.

Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza Departamentuko Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, eta 10/1996 Foru Legean jasotako berariazko araubide fiskalera bildu zen.

Nortasun juridiko propioa izan zuen, bai eta erabateko jarduteko ahalmena ere. Bere jarduerak Nafarroan garatu zituen nagusiki, bereziki eta zehazki Itoizko urtegiaren eragin-eremuan; hau da, Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Betelun. Udalerririk 273,70 Km²-ko azalera egiten dute eta 2002. urtean 2.701 biztanle zituzten:

Udala	Biztanleria	Azalera (Km ²)
Agoitz	1.892	13,20
Artzibar (udal konposatua)	291	146,30
Longida (udal konposatua)	299	90,70
Orotz-Betelu	219	23,50
Guztira	2.701	273,70

2003ko maiatzean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Fundazioari ondoko ondasunak dohainik ematea:

- Nagore (Artzibar): Guztira, hogeituzti; horietatik sei saldu egin beharko dira urtegi-lanek erasandako Artozkiko bizilagunei bizitoki berria emateko.
- Agoitz: Bidezainen parkearen instalazioak, libreki erabiltzeko izanen dena parke berriko lanak amaitutakoan.

Aurreko ondasunak kontabilitatean agertzen dira, guztira 522.718 eurogatik. Balio hori tasa-zio-txosten bati jarraikiz lortu zen, merkatuko balioa aplikatuta hiri-lurzatiei eta katastro-balioa landa-lurzatiei.

2008an, estatutuak berriro aldatu ziren eta, beste aldaketa batzuen artean, berriro sartu zen Longidako Udala, berak eskatuta. Patronatuko lehendakaria Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria zen.

Helburuen artean, estatutuei jarraikiz, ondokoak aipatuko ditugu:

- Natura- eta kultura-ondarea babestea.
- Nekazaritza-praktika esperimentalak garatzea, proiektio didaktiko eta prestakuntzakokoak, ingurumenarekiko errespetuzkoak.
- Animazio soziokulturala.
- Kultura-, ingurumen- eta aisialdi-turismoa sustatzea eskualdean.
- Natura-, kultura- eta paisaia-azpiegituren edota eskualdeko baliabide naturalekin zerikusia duten ekipamenduen eraikuntza eta mantentzea proiektatu, sustatu eta, kasua bada, finantzatzea, bai eta komunikabide tradizionalak berreskuratu eta haiei balioa ematea ere.
- Ingurumenari, kulturari, giza baliabideei eta abarrei loturiko programa eta ekimen publikoen (Europakoak eta nazionalak) sustatzaile izatea eta, oro har, landa garapenaren sustapena.

Helburuen garapena ondoren zehazten diren **jarduketa-moduren** baten bidez egingen da:

- Zentro berekien eta besterenen kudeaketa.
- Diru-laguntzak ematea.
- Erakundeentzako diru-laguntzak.
- Fundazioaren beraren jarduerekin bat datozen edo haien osagarri diren jarduerak garatzen dituzten entitateen ekimenean garapenean parte hartzea.
- Elkarte-, fundazio- edo sozietate-izaerako entitateak sortzea edo sortzen laguntzea.

Patronatua zen Fundazioaren gobernu-, ordezkaritza eta administrazio-organoa, eta bere egitekoa zen zegozkion eginkizunak betetzea, ordenamendu juridikoan eta estatutuetan ezarritakoari jarraikiz. Gutxienez sei kide eta gehienez hamabi izan behar zituen, bai karguagatikoak bai hautazkoak. Karguagatiko kideak dira:

- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria, eta, geroago, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.
- Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluko alkateak.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakaria.

Patronatuko kideen artean, izendatuko dira lehendakari bat –Nafarroako Gobernuako kontseilaria–, lehendakariorde bat –Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakaria– eta idazkari bat, zeina patronatuko kideetako bat edo beste pertsona bat izan daitekeen.

Hautazko kideak –sei, gehienez ere– aho batez aukeratuko dituzte karguagatiko kideek, Fundazioaren helburuekin zerikusia duten erakunde eta enpresa publiko edo pribatuetakoko pertsona ezagunen artean. Fundazioaren ibilbidean zehar, bi hautazko kide aukeratu ziren: patronatuko kide bat, 2007tik 2011ra bitartean, Nagoreko kontzejuaren ordezkari gisa, eta patronatuko kide ez zen idazkari bat, zeina kargu hori bete baitzuen 2007tik Fundazioa desegin arte.

Patronatua urtean bitan bilduko da gutxienez. Hala ere, esan behar da 2011ko maiatzaren 11tik 2014ko urtarrilaren 17ra bitartean patronatuak ez zuela bilerarik egin.

Zuzendaria zen patronatuaren eta batzorde delegatuaren orientabideak eta erabakiak betetzeko arduraduna. Patronatuak hautatu zuen.

Fundazioaren **arabide ekonomiko-finantzarioari** dagokionez, hauxe esan behar dugu:

- Bere jarduerak garatu ahal izateko, Fundazioa finantzatuko da bere ondarearen errendimenduetatik datozen baliabideekin eta, kasua bada, pertsona edo entitate publiko nahiz pribatuetatik jasotzen dituen laguntza, diru-laguntza edo donazioetatik datozenekin. Halaber, Fundazioak diru-sarrerak lortu ahalko ditu garatzen dituen jardueretatik, betiere horrek ez badu ekartzen balizko onuradunen eremuaren justifikatu gabeko mugatzerik.

- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioari dagokionez, indarrean dagoen araudian zehazturiko printzipio eta irizpide orokorrei jarraituko die Fundazioak.

- Patronatuak urtero burutuko ditu Fundazioaren ondarearen inbentarioa urtealdia ixtean, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta Fundazioaren jardueren eta kudeaketa ekonomikoaren oroitidazkia, zeinetan zeinetan finantzaketa-taula eta Fundazioaren helburuen betetze maila agertuko baitira. Horiez gainera, oroitidazkian agertuko dira ondareko aldeak eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkari organoetan eman direnak.

- Halaber, patronatuak onetsiko du hurrengo ekitaldiko aurrekontua, eta bertan argitasunez jasoko dira diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak eta horien azalpen-oroitidazkian.

Fundazioaren langile-egitura zuzendari kargura mugatu da. 2002ko irailean izendatu zuten, goi-zuzendaritzarako lanaldi partzialeko lan kontratu baten bidez, eta kargu hori bete zuen 2013ko abenduan borondatezko baja eman zuen arte.

Nasera/Nasertic enpresa publikoa arduratzen zen kudeaketa ekonomikoaz eta kontabilitateaz, bai eta aholkularitza juridikoaz ere.

Indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorra aplikatuta, honako hauek osatzen dituzte Fundazioaren urteko kontuak:

- Egoera-balantzea
- Galeren eta irabazien kontua
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria
- Oroitidazkia

2012 eta 2013ko ekitaldietan, urteko kontuek ez dituzte jasotzen ondare garbian izandako aldaketen eta eskudiru-fluxuen egoera-orriak, eta formalki ez da jasotzen patronatuak kontuak onetsi zituenik.

2006tik 2011ra bitarteko kontuak enpresa pribatu batek auditatu zituen, eta kasu guztietan enpresak aldeko iritzia edo aldaketarik gabea eman zuen.

Fundazioa **iraungiko da** indarrean dagoen legedian ezarritako arrazoiengatik, eta ezarritako prozedurei jarraikiz. Likidazioa eta hartzekoen esleipena horrela egingen da:

- Fundazioaren iraungitzeak ekarriko du likidazio prozedura irekitzea, zeina Patronatuak gauzatuko baitu.

- Likidazioaren ondoriozko ondasunak erakunde fundatzaileei itzuliko zaizkie, Fundazioari eginiko ekarpenen proportzio berean. Ondasunak Fundazioak zituen helburuen antzeko interes orokorreko xedeetara bideratu beharko dira.

II.2. ITOIZKO URTEGIKO INGURUNEAREN GARAPEN INTEGRALERAKO PLANA

Bere helburuak betetzeko, Fundazioak aholkularitza-enpresa bati eskatu zion inguruaren garapenerako plan integral bat presta zezan.

Plan horren behin betiko bertsioa 2003ko irailean aurkeztu zen, eta lan horren kostua, guztira, 45.107 eurokoa izan zen.

Plan horren laburpen exekutiboa irakurrita, ondoko alderdiak nabarmen daitezke:

1. Aipatzen dira lortu nahi diren helburuak, koordinaziorako bilera teknikoak, sustapenekoak eta diagnosia jakinaraztekoak eta eskualde AMIA azterketa (alderdi ahulak eta sendoak, aukerak eta mehatxuak).

2001ean, eskualdeko populazioa 2.665 biztanlekoa da; horietatik, ehuneko 71 Agoitzen bizi dira. Azmen mendean, eskualdeko populazioa ehuneko 37 murriztu da. Biztanle dentsitatea km²-ko 14 biztanlekoa da, eta populazioaren zahartze-maila nabarmena da.

Lan egiten duten 1.000 pertsonetatik, soilik 70 aritzen dira nekazaritza-jardueretan; gainerakoak merkataritzan –100 lanpostu– eta industrian –450 lanpostu– aritzen dira.

Industria sektoreak, Agoizko poligonoari esker, pisu garrantzitsua du, Nafarroako batezbestekoa baino handiagoa (biztanleria okupatuaren ehuneko 45, Nafarroako ehuneko 39aren aldean).

Populazioarekin zerikusia dutenez gain, eskualdearen ahuldade nagusiak ondoko arrazoietatik datoz: oinarritzko ekipamendu eta azpiegitura gabezia, hondakinen bilketa-sistemaren gabeziak, gune turistiko ezezaguna eta gutxi garatua eta gainbehera doan edo etekin gutxi ateratzen zaion ekonomia tradizionala (baso-baliabideak).


Sendotasun nagusiak honakoak dira: Iruñetik gertu egotea eta komunikabide onak izatea, gazteen prestakuntza-maila ona, baliabide berezi bat izatea (urtegia), partzuergo eta eskualdeko erakundeak izatea eta eskualdearen ingurumen-kalitate ona.

2. Bertan aipatzen dira bai biztanleriaren iritzia biltzea, jasotako zerbitzuen balorazioari buruzko telefono bidezko inkestren bitartez (garraioa, kultura, ingurumena, kirola, hezkuntza-zerbitzuak, osasun arlokoak, udalen zerbitzuak eta abar), bai kirol dinamizaziorako (pilota, bereziki) talde baten eta eskualdeko industriako eta zerbitzuetako enpresekiko taldeen sorrera.

Eskualdeko biztanleen iritziari dagokionez, nabarmena da garraio, kirol eta aisiarako jardueren zerbitzuek lortzen duten puntuazio baxua; aldiz, osasun zerbitzuek, hezkuntzakoek, babes zibilekoek eta udalek kudeatutakoek puntuazio altua lortzen dute.

3. Garapen estrategia. Hasierako helburu orokorra da "Itoizko urtegiaren ingurune bizi-kalitatea hobetzea", 2004tik 2007rako aldiari garatzekoa; helburu hori hiru ardatz estrategikoetan xehakatzen da, 1. irudian ikus daitezkeen moduan:

1. irudia. Garapen integralerako planaren ardatz estrategikoak



Planaren aurrekontua 28,2 milioi eurokoa da, eta diru hori erabiliko da –2004-2007 urteetan– bai azpiegitura eta ekipamenduetarako, bai horiek funtzionamenduan jartzeko edo zerbitzua emateko beharrezkoak diren gastuak finantzatzeko. Aurrekontu hori ondoko taularen arabera banatzen da:

Ardatz estrategikoa	Inbertsioak	Gastuak	Guztira	Ehunekoak
1. Ekipamendu eta azpiegiturak	7.504.005	982.000	8.486.005	30
2. Ingurumen praktikak	1.667.900	417.000	2.084.900	7
3. Zerbitzuen hobekuntza eta dinamizazioa	17.500.500	120.000	17.620.500	63
Plana, guztira	26.672.405	1.519.000	28.191.405	100

Planaren ehuneko 63, beraz, 3. ardatzean biltzen da.

Ondoko taulan adierazten dira planak jasotzen dituen jarduketak eta, aurreikuspenen arabera, horiek izanen duten kostua:

Jarduketak	Aurreikusitako zenbatekoa
1. ardatz estrategikoa: ekipamendu eta azpiegituren garapena	
1. Urtegi osagarriak (Nagoreko eta Orotz-Beteluko aintzirak) turismorako eta aisiarako ego-kitzea	756.000
2. Nafarroako Historia Naturaleko Museoa	3.316.000
3. Zerbitzu profesionalen mintegia	324.000
4. Gastronomia zentroa	1.915.005
5. Interpretazio zentroa: ura produkzio-baliabide gisa	1.209.000
6. Txirriindularen harrera-zentroa eta zikloturismorako eremu segurua	966.0000
1. ardatza, guztira	8.486.005
2. ardatz estrategikoa: Ingurumen-praktika onen erreferentzia-gunea	
7. Jarduera publiko eta pribatuen jasangarritasun-behatokia	36.000
8. "Aalborg-eko Gutuna" sinatzea eta Agenda 21 ezartzea.	45.000
9. Efizientzia energetikoari eta eraikuntzako bioklimatismoari buruzko hitzarmena	48.000
10. BIEaren kudeaketa	1.835.900
11. Urtegi-inguruneen nazioarteko sarea, jasangarritasuna sustatzeko jardueretan lankidetzan aritzeko.	120.000
2. ardatza, guztira	2.084.900
3. ardatz estrategikoa: zerbitzu-hornidura hobetzea eta dinamizazio sortzailea	
12. Ekipamenduak eta udal zerbitzuak hobetzeko proiektuak	1.998.000
12.1 San Miguel ikastetxe publikoa	3.630.000
12.2 Agoizko industrialdea	8.610.000
12.3 Tokiko intereseko proiektuak Agoitzen, Artzibarren eta Orotz-Betelun.	24.000
13. Eskualdeko zaharberritze-bulegoa	
14. Hiri-edertzerako Plana	1.020.000
14.1 Elementu funtzionalak eta apaingarriak jartzea hiriguneetan, lorategiak	312.000
14. 2 Komunikazioetarako azpiegiturek eta kable elektrikoek ondare historikoan sorturiko ikusizko eragina ezabatzea/arintzea	
15. Zerbitzu berriari abian jartzea	
15.1 Herri abandonatuak zaharberritu eta proiektu berezietarako erabiltzea.	
15.2 Orotz-Beteluko ur termalen zentroa	
15.3 Itoiz inguruko garraio kolektiboa hobetzea	
15.4 "Saltokiak eskura" edo Itoiz inguruko gertuko saltokiak.	
16. Koordinazio-taldea, aisiarako urteko dinamizazio-programa bat sustatzeko	72.000
17. Artziko leinu-etxe jauregia	1.954.500
3. ardatza, guztira	17.620.500
Itoizko Urtegiko ingurunearen garapen integralerako plana	28.191.405

Hamazazpi jarduketa hauek azpiproiektu ugarian xehakutzen dira, baina ez daude beti erabat identifikaturik eta haien kostua ez dago beti erabat zehaztuta.

Ekitaldika, aurreko aurrekontua ondoko taularen arabera banatzen da, eta ikus daiteke gastuaren betetze-aurreikuspena 2005 eta 2006ko ekitaldietan biltzen dela –gastu osoaren ehuneko 76–:

Ekitaldia	Zenbatekoa	Ehuneko
2004	3.632.815	13
2005	12.244.000	44
2006	9.118.295	32
2007	3.196.295	11
Plana, guztira	28.191.405	100

Ondoko taulan agertzen dira aurreikuspenen arabera planaren finantzaketa beren gain hartu behar zuten eragileak:

Eragile finantzatzailea	Zenbatekoa	Ehunekoa
Inguruko udalak	634.000	2
Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa	258.000	1
Ebroko Konfederazio Hidrografikoa	12.216.505	43
Nafarroako Gobernua	11.452.900	41
Enpresa publikoak	3.630.000	13
Plana, guztira	28.191.405	100

Hau da, aurreikusitako eragile finantzatzaile nagusiak ziren Nafarroako Gobernua eta bere enpresa publikoak –ehuneko 54– eta Ebroko Ur Konfederazioa –ehuneko 43–.

Planaren aurreikuspenen arabera, azpiegiturak egiteko eta mantentzeko lanek behin-behineko 757 lanposturen sorrera ekarri behar zuten, guztira; azken emaitzen arabera, 31 lanpostu egonkor sortuko ziren –17 zuzenekoak eta 14 zeharkakoak–.

Azkenik, ondoko taulan agertzen da planak jasotzen zituen jarduketan, haien kostuaren eta finantzaketaren laburpen bat:

FINANTZAKETA	Itoitz-Nafarroako Udalak		Nafarroako Gobernuko departamentuak	Enpresa publikoak	2004-2007 Plan Integrala	
	Ubidea Fundazioa	Ebroko Konfederazio Hidrografikoa			Inbertisioa	Gastuak
1. ardatz estrategikoa: ekipamendu eta azpiegituren garapena						
Urtegi osagarriak (Nagoreko eta Orotz-Beteluko aintzirak) turismorako eta aisiarako egokitzea	72.000	684.000	658.000		684.000	756.000
Nafarroako Historia Naturaleko Museoa		2.658.000	300.000		2.766.000	3.316.000
Zerbitzu profesionalen mintegia	24.000		180.000		324.000	324.000
Gastronomia zentroa		1.735.005	180.000		1.735.005	1.915.005
Interpretazio zentroa: ura produkzio-baliabide gisa		1.209.000			1.029.000	1.209.000
Txirindularien harrera-zentroa eta zikioturismorako eremu segurua	66.000		900.000		966.000	966.000
1. ardatza, guztira	162.000	6.286.005	2.038.000		7.504.005	8.486.005
2. ardatz estrategikoa: Ingurumen-praktika onen erreferentzia-gunea						
Jarduera publiko eta pribatuaren jasangarritasun-behatokia	12.000		24.000		12.000	36.000
"Aalborg-eko Gutuna" sinatzea eta Agenda 21 ezartzea.			45.000		45.000	45.000
Efizientzia energetikoari eta eraikuntzako bioklimatismoari buruzko hitzarmena	24.000		24.000		48.000	48.000
BIEaren kudeaketa			1.835.900		1.610.900	1.835.900
Urtegi-inguruneen nazioarteko sarea, jasangarritasuna sustatzeko jardueretan lankidetzan aritzeko.			120.000		120.000	120.000
2. ardatza, guztira	36.000		2.048.900		1.667.900	2.084.900
3. ardatz estrategikoa: zerbitzu-hornidura hobetzea eta dinamizazio sortzailea						
Ekipamenduak eta udal zerbitzuak hobetzeko proiektuak						
San Miguel ikastetxe publikoa			1.998.000		1.998.000	1.998.000
Agoizko industrialdea				3.630.000	3.630.000	3.630.000
Tokiko intereseko proiektuak Agoitzen, Artzibarren eta Orotz-Betelun.	610.000		4.000.000		8.610.000	8.610.000
Eskualdeko zaharberritze-bulegoa	24.000				24.000	24.000
Hiri-edertzerako Plana						
Elementu funtzionalak eta apaingarriak jartzea hiriguneetan, lorategiak			1.020.000		1.020.000	1.020.000
Komunikazioetarako azpiegiturak eta kable elektrikoek ondare historikoan sorturiko ikusizko eragina ezabatzea/arintzea			312.000		312.000	312.000
Zerbitzu berrian abian jartzea						
Herri abandonatuak zaharberritu eta proiektu berezietarako erabiltzea						
Orotz-Beteluko ur termalen zentroa						
Itoiz inguruko garraio kolektiboa hobetzea						
"Saltokiak eskura" edo Itoiz inguruko gertuko saltokiak.						
Koordinazio-taldea, aisiarako urteko dinamizazio-programa bat sustatzeko	36.000		36.000		0	72.000
Artziko leinu-etxe jauregia	24.000		1.930.500		1.930.500	1.954.500
3. ardatza, guztira	634.000		5.930.500		17.500.500	17.620.500
2004-2007 urteetarako Itoizko Urtegi ingurunearen garapen integratuerako plana	634.000		12.216.505		26.672.405	28.191.405

II.3. ITOITZ-NAFARROAKO UBIDEA FUNDAZIOAREN DESEGITEA

2014ko urtarrilaren 17an, Fundazioaren patronatuak ondoko erabakiak hartu zituen:

a) Fundazioaren iraungitzea, haren desegitearen bidez.

b) Fundazioaren ondarea likidatu eta esleitzeko prozesua irekitzea. Likidaziotik heldutako ondasun higiezinak, bere garaian Nafarroako Gobernuak eman eta lagatakoak, hari itzuliko zaizkio, erakunde fundatzaile bakarra den aldetik, eta berak interes orokorreko xedeetarako erabili beharko ditu, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak egiten dituen antzekoetarako.

2014ko otsailean, Fundazioa likidatzeko txosten ekonomiko bat egin zen, 2014ko urtarrilaren 17ko egoera azaltzen zuena; haren datu ekonomikoak aurrerago gaurkotu ziren, urte horren amaieran. Txostenak, funtsean, Fundazioaren kontabilitate-datuak, haren ondasunen egoera eta Fundazioaren hartzekoa banatzeko proposamena jasotzen dira.

Hartara, 2014ko urtarrileko eta amaierako data horietan, honako likidezia-balantzeak zeuzkan:

Aktiboa	2014 urtarrila	2014ko abendua
Aktibo ez-arrunta	801.245	801.245
Ibilgetu materiala	346.747	346.747
Higiezinetak inbertsioak	454.498	454.498
Aktibo arrunta	290.473	8.027
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	37.791	4.998
Epe laburreko finantza-inbertsioak	245.000	0
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	7.682	3.029
Aktiboa, guztira	1.091.718	809.272

Ondare garbia eta pasiboa	2014 urtarrila	2014ko abendua
Ondare garbia	1.072.901	808.541
Fundatze-zuzkidura	402.678	402.678
Erreserbak	4.453	4.453
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-3.880	-3.880
Ekitaldiko emaitza	-58	-264.418
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	669.707	669.707
Pasibo ez-arrunta	0	0
Epe luzeko zorrak	0	0
Pasibo arrunta	18.817	731
Epe laburreko zorrak	11.930	0
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	6.887	731
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.091.718	809.272

Aktibo ez-korrontea, kontabilitate-balioen arabera, Nafarroako Gobernuak Fundazioari lagatuko lurzati eta orubeei dagokie, besterendu ez direnei, bai eta Fundazioak eskuratutako orube bati –346.747 euroko prezioan erosi zuen– eta Jubilatuen Kluba kokatuta dagoen hiri-finka bati ere, zeina Agoizko Udalarari errentan emana baitago –454.498 euroko kopurua–.

Aktibo korrontearen barruan, 2014ko urtarrileko merkataritza-hartzekodun gehienak Agoizko Udalarari zegozkion, 33.698 euroko kopuruarekin, Jubilatuen Klubaren aipatutako errentamendua-zen zorraren ondorioz. Zor hori aurrerago konpentsatzen da Fundazioaren gaindikina udalei banatuz.

Fundazioaren epe laburreko zorrek erreferentzia egiten diete, funtsean, errentariak eskudiritan jarritako fidantzei eta eginda dauden lanengatik hornitzaileei zor zaienari.

Gainera, Fundazioari lagatako honako higiezinak kudeatzen zituen:

- Urizko Dorrea hotela (Uritz), Nafarroako Gobernuak Fundazioari ustia zezan lagatakoa; errentamendu-kontratua indarrean du.
- Zaldu jatetxea (Orotz-Betelu), Fundazioari ustiatzeko lagatakoa Oroz Beteluko Udalarekiko hitzarmen baten bitartez; errentamendu-kontratua indarrean du.
- "La Central" turismo-apartamentua (Azparren), Fundazioari ustia zezan lagatakoa, Azparrengo Kontzejuarekiko hitzarmen baten bitartez; kudeaketa interesduneko kontratu baten bidez kudeatzen da.
- Profesionalentzako Erabilera Anitzeko Zentroa (Agoitz), Fundazioari ustia zezan lagatakoa, hiru bulego altzaridun alokatzeko Nasuvinsarekin egindako hitzarmen baten bitartez.

Likidazio prozesua dela-eta zenbatetsi diren gastuak 12.562 eurokoak dira.

Hartzekoa likidatzeko proposamenari dagokionez, honako hau esaten da:

- Jabetzan diren ondasun higiezinak Nafarroako Gobernuari itzuliko zaizkio, eta jabe berriak Jubilatuen Klubaren errentamendu-kontratuan subrogatzea proposatzen da.

- Lagatako higieziinei dagokienez, honako hau esan beharra daukagu:

a) Urizko Dorrea Hotela. Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuari jakinarazi zaio azter dezan esku-aldaketarako bidezkoa den formula juridikoa; hartan, errentamendu kontratu indardun bat dagoela jaso beharko da.

b) Gainerako higiezinaren kasuan, lagapen/lankidetzak akordioaren salaketa egiten ari da; horrek berarekin ekarriko du haien kudeaketa jabeen itzultzea.

Banaketaren gerakina (eskudirua gehi kobrantza-eskubidea ken ordaintzeko dauden zorrak) 252.077 eurokoa dela kalkulatu da, eta erabaki da hori Fundazioaren patronatua osatzen duten toki entitateen artean banatzea, haiek 2011n izandako gastuen arabera. Honako hau da banaketaren emaitza:

Udala	Zenbatekoa
Agoitz (*)	100.517
Artzi	70.721
Longida	56.790
Orotz-Betelu	24.049
Guztira	252.077

(*) Zenbateko horretatik alokairuetatik heldu den 33.698 euroko zorra kenduko da.

Toki entitateei egindako banaketa horren justifikazioa da ezen 2011n Fundazioak aurrekontu bat onetsi zuela, eta hartan toki entitateekin batera finantzatutako inbertsio batzuk jasotzen direla. Nafarroako Gobernuak 2011n sartutako doikuntzekin, Fundazioarentzako transferentziak kendu ziren; horrenbestez, ezin da halako baterako finantzaketarik egin.

Hartara, aipatutako toki entitateek 382.064 euro egiten duen obra ziurtatuaren guztizkoa aurkezten dute; kontuan hartuta banatu beharreko kopuruaren muga 252.077 eurokoa dela, banaketarako edo doikuntzako irizpide batzuk ezarri ziren, eta aurreko taulan adierazitako zenbatekoak dira horren emaitza.

2014ko azaroan, patronatuak honako hau erabaki zuen:

a) Fundazioa likidatzea.

b) Fundazioaren jabetzak Nafarroako Gobernuari itzultzea: 801.245 euro egiten dute.

c) Kontuan Fundazioaren izenean dagoen saldoa, 30.361 eurokoa, erabiltzea likidazio-gastuak ordaintzeko, ordaintzeke dauden fakturei aurre egiteko eta eskudiruan jarritako abalak itzultzeko. Gaingikina, kasua bada, Nasertic sozietate publikoari transferituko zaio, hornidura moduan, likidazioaren azken gastuak estaltzeko.

d) Fundazioa azkentzea.

2015eko urtarrilean, Fundazioaren desegitea, likidazioa, esleipenak eta azkentzea eskritura publikoan¹ jaso ziren. Aurreko akordioa aplikatuta, honako hauek egin ziren:

- Nafarroako Gobernuari honako ondasun hauek itzultzea, kontabilitate-informazioaren arabera baloratuak:

Udalerria	Lurzatia	Azalera (m ²)	Kontabilitate-balioa	Multzoa	Oharrak
Nagore	5. poligonoa 308. lurzatia.	309	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 321. lurzatia.	311	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 333. lurzatia.	320	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 334. lurzatia.	320	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 335. lurzatia.	373	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 338. lurzatia.	324	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 339. lurzatia.	325	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 340. lurzatia.	320	33.742	Hiri-lurra	Nahieran erabiltzekoa
Nagore	5. poligonoa 348. lurzatia.	389	742	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 349. lurzatia.	120	17	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 350. lurzatia.	5.297	795	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 351. lurzatia.	4.922	951	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 140. lurzatia.	1.621	4	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 382. lurzatia.	1.764	20	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Nagore	5. poligonoa 411. lurzatia.	236	16.487	Landa-lurra	Aprobetxamendurik gabe
Agoitz	1. poligonoa 557. lurzatia, 1. modulua	390 ⁽¹⁾	454.498	Hiri-lurra, Jubila-tuen Kluba	Udalari errentan emana Agoitz
Agoitz	1. poligonoa 275. lurzatia.	51 ⁽¹⁾	57.047	Hiri-lurra, etxebizitza	Nahieran erabiltzekoa
Agoitz	1. poligonoa, 274. lurzatia	10 ⁽¹⁾		Hiri-lurra, etxabea	Nahieran erabiltzekoa
Agoitz	Plusbalio-zerga		745		
Guztira			801.245		

⁽¹⁾ metro koadro eraikiak

Aurreko zenbatekoa bat dator Fundazioaren aktibo ez-korrontearen balio kontabilizatuarekin.

Horiek guztiak Nafarroako Gobernuaren doako lagapenaren bidez eskuratu zituen Fundazioak, azkeneko biak izan ezik, horiek jabe partikularrei erosi baitzitzaizkien. Doako lagapenean jasotakoak kanpoko aditu independente baten tasazioarekin baloratu ziren.

- Nafarroako Gobernuari Urizko Dorrea hotela itzultzea.
- Hurrengo ondasunak ondoren aipatzen diren entitateei itzultzea:
 - a) Oroz Beteluko Udalari Zaldu jatetxea itzultzea.
 - b) "La Central" apartamentu turistikoa Azparrengo Kontzejuari itzultzea.
 - c) Profesionalentzako Erabilera Anitzeko zentroa Nasuvinsa enpresa publikoari itzultzea.

2015eko martxoaren 31n aurreko ondasunak direla-eta Nafarroako Gobernuak emandako onarpenaren eskritura publikoa egiten da.

¹ 2015eko martxoan eskritura zuzendu eta osatu zen beste eskritura publiko batekin, funtsean itzulitako finka batzuen deskribapenean eta zametan ageri ziren akatsak zuzentzeko.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria kontuan hartuta eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioaren legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa eta kudeaketaren fiskalizazioa egin ditugu, 2002tik 2014ra bitarteko aldiari dagokionez.

Honako hau zen gure txostenaren helburua:

A) **Iritzi finantzarioa eta legezkotasunaren betetzeari buruzkoa** adieraztea, honako hauek direla eta:

- Ea Fundazio horren urteko kontuek bere egoera finantzario eta ondarekoaren irudi fidela erakusten duten 2002tik 2014ra bitarteko aldian.
- Aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila, epe horretan.

B) Ondorio batzuk ateratzea kudeaketan lortutako **eraginkortasun- eta efizientzia-mailari** buruz.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Bartzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz egingen da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira; arau horien barruan, eginiko fiskalizazioaren tipologiarekin bat datozen ISSAI-ES arauak aplikatu dira. Gure jardunbidean, lanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira, horien barne dela eragiketa zehatzen berrikuspen selektiboa.

Esparru finantzarioan, eta kontuan hartuta 2006tik 2011rako urteko kontuak auditoria firma batek auditatu zituela, eta iritzi ez-aldatua edo aldekoa eman zuela, gure lana, funtsean, 2002tik 2005erako kontuen azterketan zentratu da batez ere, eta bereziki Fundazioaren desegitearen balantzean.

Aztertutako aldian, bi kontabilitate-plan orokor daude aldi berean; hori dela eta, azterketa batzuk kontuen eta kontabilitate-irizpideen arteko hurbilketa bidez egin dira.

Fundazioaren patronatuak 2014ko urtarrilean erabaki zuen hura desegin eta likidatzea. Horren emaitza da 2014ko kontuak ez direla egin funtzionamenduan dagoen entitatearen printzipioari jarraituz.

Legezkotasunaren ikuspuntutik, gure jarduketa oinarritu da fundazio hori lotuta zegoeneko araudiaren aplikazioa egiaztatzean. Zehazki, hari aplikatzekoak zaizkion arauak, funtsean, honako hauek dira: haren estatutuak; martxoaren 1eko 1/1973 Legea, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma onesten duena; uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubideari buruzkoa; eta abenduaren 26ko 50/2002 Legea, Fundazioei buruzkoa; arlo ekonomiko eta kontabilitatekoan eta kudeaketaren arloan, fundazio publikoei aplikatzekoak zaizkien arau orokorrak eta kontabilitate plan orokorra.

Parlamentu-eskarian aipatutako eraginkortasun- eta efizientzia-alderdiei dagokienez, eta abiapuntutzat hartuta 2003an Fundazioak Itoitzko urtegiaren ingururako garapen integralerako plan bat onetsi zuela, honako honetan zetzan gure jarduketa:

- Garapen integralerako planaren helburuak aztertu eta egiaztatzea, eta haren lorpenak neuritzea.

- Egiaztatzea plan horren jarraipen bat egin den, eta ikustea zein desbideratze egon diren jarduketetan, epeetan eta kostuetan.

- Fundazioa azkentzeko egunean, zein egoeratan dauden hasi diren baina amaitzeko dauden proiektuak.

Alabaina, aurreko alderdietatik batzuk ezin izan dira egiaztatu, III.2 atalean azaldu ditugun mugak direla eta.

Atal hau osatu da Fundazioan sartutako udalen 2002tik 2014ra arteko egoeraren bilakaerari buruzko hurbilketa sozio-ekonomiko bat eginez.

Halaber, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatu zitzaion informa zezan erakunde horrek bere gain zuzenean hartutako jarduketei buruz –egindakoei buruz zein egiteko daudenei buruz.

Komeni da zehaztea 2014ko urtarriletik, Fundazioak ez duela langile berekirik; hori dela eta, likidazio- eta azkentze-jarduketak patronatuko idazkariak eta haren zuzendariak egin dituzte, kontabilitatea kudeatzen duen enpresa publikoaren lankidetzarekin.

Gure lanaren denbora-esparruak fundazio hori eratu zenetik (2002ko uztaila) 2014ko abenduaren 31ra arte hartzen du. Hala eta guzti zere, 2015eko lehen lauhilekora arte luzatu da, haren azkentze prozesuaren amaiera aztertze aldera.

III.2. MUGAK

Gure lanean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Fundazioak onetsitako garapen integralerako planak ez du adierazlerik, "Itoizko urtegiaren inguruneke bizi-kalitatea hobetzeko" helburu orokorraren eta garapeneko helburu estrategikoen betetzean izan duen eraginak neurtu eta kuantifikatzea bideratzen duenik.

- Ez da amaierako dokumenturik egin garapen integralerako planaren jarraipenari eta betetzeari buruz. Fundazioak 2003tik 2012ra bitarteko ekitaldietarako jarduketan urteko oroitidazkiak egiten ditu, baina horiek ez diote planaren metodologiari eta egiturari jarraitzen.

- Udalen araberako informazio estatistiko xehakaturik ezin lortzeak mugatu egin du eskualdeari buruzko hurbilpen sozio-ekonomikoa egin ahal izatea.

Berez gure lanerako muga bat ez bada ere, komeni da zehaztea Nafarroako Gobernuak 2011tik egindako aurrekontu-doikuntzen aplikazioak Fundazioa uzten duela planak jasotako jardueraren finantzaketa guztiari ia aurre egin ezinik. Egoera horrek, noski, eragina izan du haren kudeaketari buruzko azterketan eta ondorioak ateratzean.

IV. IRITZI FINANTZARIOA ETA LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKOA

Ondoren, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioaren urteko kontuen finantzen fiskalizazioaren eta legezkontasuna betetzeari buruzkoaren gaineko iritzia ematen dugu 2002tik 2014ra bitarteko ekitaldiei dagokienez. Horren laburpena txosten honetako 1. eranskinean ageri da:

Fundazioaren erantzukizuna

Patronatua zen urteko kontuak egiteko ardura zuena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Fundazioaren ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, beharrezkotzat jotzen zen barne-kontrolaren erantzulea zen, akats materialik gabeko urteko kontu batzuk prestatu eta aurkeztu ahal izateko.

Patronatuak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuen fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkontasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizatorako oinarritzko printzipioen arabera.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkontasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne direla kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa eta legezkontasunaren ez-betetze aipagarriak. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –garrantzitsua baita entitateak kontu orokorrak egin ditzan– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkontasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** eratortzen da.

2002tik 2013ra bitarteko ekitaldietako urteko kontuei buruzko finantza-iritzia

Gure iritziak, erantsitako urteko kontuek, 2002ko ekitalditik 2013ko ekitaldira artekoak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Fundazioaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez aipatutako urteetako abenduaren 31n, bai eta data horietan amaitutako ekitaldietako emaitza ekonomikoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

2014ko ekitaldiari dagozkion urteroko kontuei buruzko finantza-iritzia

Gure iritziak, 2014ko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Fundazioaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2014ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomikoei dagokienez ere, Fundazioaren likidazioari eta azkentzeari buruzko kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

Azpimarra-Ierrokada

2014ko urtarrilean, Fundazioa azkentzea erabaki zuen patronatuak. Horren ondorioz, 2014ko kontuak egokientzat jo ditugun balorazio-arauen arabera egin dira, aktiboa gauzatzera, zorrak kitatzera eta emaitzazko ondarea banatzera bideratutako eragiketen irudi zehatza erakuste aldera.

Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Fundazioaren 2002ko ekitalditik 2014ko ekitaldira bitarteko finantzen egoera-orrietan jasotako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V. FUNDAZIOAK EGINDAKO KUDEAKETARI BURUZKO ONDORIOAK

V.1. ITOIZKO URTEGIAREN INGURUNEAREN GARAPEN INTEGRALERAKO PLANA

1.a Garapen integralerako plana

Garapen integralerako planaren lanketa eskualdean aurreikusitako ekintza eta jarduketan agiri oso bat da, haien finantzaketa ere biltzen duena. Biztanleriaren eta ukitutako udalen parte-hartze aktiboa sustatzen duen metodologia baten arabera egin da, eta finantzaketan esku hartzen duten eragile eta administrazioek ere hartan parte hartu izan dute.

Hala eta guztiz ere, zenbait alderdik eragina izan dute haren Baliagarritasunean, Fundazioaren kudeaketa baloratzeari eta hari buruzko ondorioak ateratzeko tresna gisa.

- Plana dokumentu bizia izan da, jarduketa berriak bildu izan dituena. Hartan jasotako jarduketa batzuk, berriz, ez dira bete, zeukaten bideragarritasun ekonomiko-sozial edo/eta finantzarioa nahiz inguruko udalen interesa zirela eta.

- Helburuak ez ziren zenbatetsi, eta ez zen haiek neurtzeko adierazle-sistematik ezarri, haien betetze-maila egiaztatzeko edo, kasua bazen, antzemandako desbideratzeak aztertzeko.

- Ez da amaierako dokumenturik egin egiazki aurrera eraman diren jarduketei buruz eta haien kostuari buruz, ez eta azkenean jaso direnei eta ezetsi direnei buruz ere.

- Fundazioak bere bizitza-urteetan zehar izan duen jardueraren jarraipenari buruzko urteko oroitidazkiak ez ziren egiten aipatutako planaren metodologiari eta egiturari jarraituz.

Aurreko alderdiei gehitu behar zaie diseinuan aplikatutako planaren denbora-alderdia, hasieran, 2004tik 2007rako epea hartzen zuena, bai eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-egoerak Fundazioaren kudeaketan izan duen eragin negatiboa ere.

Hori dela eta, ezin dugu ondoriorik atera helburuen betetze-mailari buruz, ez eta kostu eta epeak direla-eta desbideratzeak gertatu izanari buruz ere.

Fundazioak jardun duen aldian, bai Fundazioak, bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, 17 milioi inguru inbertitu dituzte. Kopuru hori garapenerako planak jasotako aurreikuspenen ehuneko 60 egiten du.

Komenigarritzat jotzen dugu aipatzea ezen Fundazioaren jarduketa oso ere aipagarria izan dela bitartekaritza-, arintze- eta dinamizatzeko-eginkizunetan, inguruko udalerrietan eta inplikaturako eragile sozialen eta administrazio publikoen lanari dagokienez.

Plana dela-eta egin dugun lanak, atal honetako hurrengo ondorioetan azaltzen denak, ardatz izan du, horrenbestez, deskribatzea Fundazioak zein Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako jarduketak, bai eta egiteko gelditu direnak ere.

2.a Fundazioaren ekimenez egindako jarduketak

Txosten honen 2. eranskinean, jardun duen urteetan Fundazioak aurrera eraman dituen jarduketan laburpen bat jaso dugu.

Zehaztu beharra dago jarduketa batzuk geldirik geratu direla aurreproiektu edo proiektu faseetan, Fundazioaren desgitearen eta finantzaketa faltaren ondorioz.

Laburpena multzokatuta aurkeztu dugu, Fundazioak berak aurkeztutako egiturari jarraituz eta jarduketan tipologiari jarraituz, betiere ukitutako udalen arabera sailkatuta.

Hartara, honako jarduketa hauek bereiz ditzakegu:

- Proiektu estrategikoak edo urtegiaren nahiz udalerrien ingurunean, bai eta inguruneko ibilbideen sarean, eragina dutenak.
- Tokiko intereseko obra eta proiektuak.
- Beste onuradun batzuentzako laguntzak.

Aipatutako 2. eranskina irakurrita, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Proiektu eta jarduketa estrategikoak, bai urtegiaren ingurunean, bai Fundazioan parte hartzen duten toki entitateetako bikoitzean eragina dutenak. Horiek direla eta, honakoak aipatu behar ditugu:

a) Ingurunea. Dike osagarriak eta urtegiaren aldeak, bai eta ingurune osoan egitekoak diren ibilbideen sarea ere, antolatzeke udalez gaidiko plan sektorialak, ingurune horren balio historiko, etnografiko eta naturalak sustatzeko, eta eskualdeko etnografiari eta baliabide turistikoetarako buruzko azterlan eta jarduketak.

b) Agoitz. 49 etxebizitza babestu eraikitzeke lurzattia urbanizatzea, eskualderako kultur etxea, Antzuelako zubia zaharberritzea, profesionalen mintegia eta klub soziala.

c) Orotz-Betelu Izaera turistikoko jarduketak, arrantzakoa, ur termaletakoak, elementu historiko eta ondarezkoak berreskuratzeke, urtegiko harrera-eremua eta jatetxea.

d) Artzibar. Etxebizitzen sektorearen plan partziala, urtegiko harrera-esparru desberdinak, elementu historiko eta ondarekeak berreskuratzea, urtegiko berdeguneen mantentzea, kanpin bat eta landa-hotel bat egiteke plan berezia.

c) Longida. Elementu historiko eta ondarekeak berreskuratzea, zenbait jarduketa eta azterlan turistiko eta etnografikoak.

- Toki intereseko obra eta proiektuak, funtsean, oinarrizko zerbitzu publikoen gaineko jarduketarako dagozkie; esate baterako, hornidura eta saneamendu-sareak, argiteria publikoa, eraikin eta instalazio publikoak hobetzea, ekipamenduak, zorua ematea, bideak egokitzea eta abar. Azken batean, helburua zen zerbitzu horiek hobetzea, biztanleriaren beharrei egokitzeko, Fundazioaren sustapenaren eta laguntzaren bitartez, bai kasuko proiektu teknikoak idazteari dagokionez, bai hobekuntza horien finantzaketa-beharrak estaltzeari dagokionez.

- Beste onuradun batzuentzako laguntzak. Zabalkunde eta sormen kulturaleko jarduketak jasotzen ditu, bai eta dinamizaziokoak, publizitatekoak eta partikularren inbertsioekin lotutakoak ere. Azken batean, helburua zen eskualdeko balio tradizionalak sustatu eta berreskuratzea eta haren irudi eta erakarmen turistikoa bultzatzea.

Laburbilduz, jarduketa hauekin, Fundazioak, eragile dinamizatzaile gisa, ahaleginak egin ditu, batetik, arlo honetan gabeziak dauzkan eskualde bateko oinarrizko egiturak hobetzeko eta haren baliabide turistikoak sustatzeko, Itoizko urtegia bezalako elementu berezi bat euskarri hartuta; eta, bestetik, udalen gaitasun eskasa zela-eta, haien finantza-baliabideak osatu ditu –zuzenean edo zeharka, beste eragile publiko batzuen bitartez, helburu horiek lortu ahal izateko.

3.a Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako jarduketak

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bidalitako informazioari jarraituz, azken horrek, bere Itoizko Urtegiaren Lurralde Lehengoratzeko Planaren barruan, zenbait obra egin zituen, 9,33 milioi egin zutenak. Obra horiek zuzenean egin eta finantzatu zituen erakunde horrek. Hurrengo taulan ikus daiteke haien xehakatzeara:

Udalerrria	Izena	Eginiko inbertsioa	Inbertsioaren aldia
Agoitz	Itoizko presaren lanek Agoitz aldean ukitutako bideak egokitzea eta hobetzea	605.725	2002-2003
Agoitz	Hornidura- eta saneamendu sareak berritzeko eta zolaberritzeko obrak 3. fasea, Agoitzen	905.367	2002-2005
Agoitz	Hornidura- eta saneamendu- sareak berritzeko eta zolaberritzeko obra osagarriak 3. fasea, Agoitzen	163.771	2004-2005
Agoitz	Konpentsazio-neurriak. Itoizko Urtegia: Agoizko kirol instalazioak (pilotalekua).	1.067.007	2003-2005
Agoitz	Agoizko hiriguneko zenbat esparru urbanizatzea (kultur etxea eta pilotalekua)	697.755	2003-2005
Orotz-Betelu	Orotz-Beteluko hornidura- eta saneamendu-sareak berri eta zabaltzea	621.902	2005-2006
Agoitz	Konpentsazio-neurriak. Itoizko Urtegia: Agoizko aisiarako instalazioak zabaltzea (igerilekua)	2.242.031	2005-2007
Agoitz	Agoizko industrialdea hobetzeko proiektua, Itoizko urtegiagatiko konpentsazio-neurri gisa.	657.121	2010-2011
Orotz-Betelu	Orotz-Beteluko elizaren eta kanposantuaren ingurua egokitzeko proiektua	198.771	2010
Artzi	Artziko Ama Birjinaren eliza zaharberitzeko proiektua	199.885	2010-2011
Agoitz	Itoizko presaren lotura-ubidearen drainatze-obretako ura biltzeko kolektorearen proiektua	1.386.028	2009-2010
Billabeta	Billabeta kontzejuko kaleetako zoladura egokitu eta hobetzea	54.413	2011
Longida	Longida Ibarreko kaleetako zoladura egokitu eta hobetzea	35.783	2011
Meotz	Meoz kontzejuko kaleetako zoladura egokitu eta hobetzea	30.532	2011
Artzibar	Uritzik Espotz eta Imizkotz herrietara doazen bideak egokitu eta hobe- tzea, Itoizko presaren Artzibar aldeko obrek ukitu baitzituzten.	229.307	2011
Artzibar Orotz-Betelu	Itoizko urtegiako, Urdirozko eta Irubeko bideetan zoladura jartzea eta hobekuntzak egitea	239.522	2012
Guztira		9.334.920	2002-2012

Aipatutako konfederazioak bere idazkian adierazi bezala, ez dago aurreikusita Fundazioarekin lotutako inongo jarduketaren lizitaziorik egin edo izapidetzea.

Plan integralean Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren 12,22 milioiko finantzaketa aurreikusita zegoen.

Aurreko jarduketaz gainera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa Nagoreko dike osagarria egiten ari da; dike horrek, jada eraikita dagoen Orotz-Betelukoarekin batera, 26,5 milioi inguruko inbertsioa egiten dute. Dike horiek eskualdea garatzeko estrategiaren gako-elementuetako bat dira.

4.a Fundazioak egiteko gelditu diren jarduketak

Aztertutako informazioari jarraituz, Fundazioak 6,17 milioi egiten duten honako jarduketa hauek utzi zituen egin gabe:

Egiteko dauden jarduketak	Zenbatekoa
Nagoreko ur-esparrua	1.300.000
Nagoreko etxebizitzetako sektorearen garapena	395.000
Itoizko kanpina	3.000.000
Mariano García etxea	225.000
Iratiko ur-jarduketetarako esparrua	1.250.000
Guztira	6.170.000

Ez dago jasota Nafarroako Gobernuak –Fundazioaren jardueraren herentzia hartu duen entitatea den aldetik– jarduketa horiek eginen dituen ala ez.

Hala eta guztiz ere, Fundazioaren iritiz, ikuspuntu finantzariotik, bideragarriak dira eta ingurunerako baliagarritasuna dute, honako jarduketa hauek: Nagoreko ur-esparrua eta Artziko jauregia zaharberritzea –hasiera batean, Konfederazioak hartu zuen bere gain obra hori–.

Aurreko jarduketek gainera, eta haien egitea arintze aldera, Fundazioak 17,92 milioi egiten zuten proiektuak egin zituen, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak kudeatu behar zituena; haietarako funtsak, ordea, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruetako Ministerioak jarri behar ditu. Zehazki, honako hauei dagozkie proiektu horiek:

Fundazioak idatzitako proiektuak, Ministerioaren finantzaketa falta dutenak	Zenbatekoa
Artzibarko ziklo hidrologikoaren arloko jarduketak	635.929
Artzibarko udal ekipamenduak hobetzea	4.026.613
Nagoreko 3. sistema orokorra egitea	1.959.597
Agoizko zentra hidroelektrikoa zaharberritzea	2.118.414
Artziko jauregia zaharberritzea eta hura Itoizko urtegiara doazen bisitarietako gune bihurtzea	2.769.437
Itoizko presaren lanek Artzibarren ukitutako bideak egokitzea eta hobetzea	1.998.610
Ortiz-Beteluko Irubeko bidea eta Olaldeko depositurako sarbidea	117.117
Agoizko zeharkalea hobetzea	1.960.000
Longida Ibarreko udal ekipamenduak hobetzea	2.199.000
Finantzatzeko dagoena, guztira	17.915.113

V.2. FUNDAZIOAREN GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK

5.a Fundazioaren gastuak

2002tik 2014ra doan aldiko emaitzen kontuen arabera, Fundazioak, guztira, 7,92 milioi gastatu ditu; hona xehetasunak:

2002-2014 urteetako gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Langileak	368.092	5
Bestelako ustiatze-gastuak	7.546.504	95
Ibilgetuaren amortizazioa	1.431	-
Finantza-gastuak	8.436	-
Fundazioaren gastuak, guztira	7.924.463	100

Ikus daitekeen bezala, gastuen ehuneko 95 urtegiaren ingurunean jarduketak egitera bideratu da; haien antolamendu-egitura, berriz, ehuneko 5 eskasa da.

Ekitaldiaren arabera, aurreko gastuak honela daude banatuta:

2002-2014 urteetako gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoa	Metatutakoa (%)
2002	4.740	0	0
2003	86.500	1	1
2004	143.093	2	3
2005	2.261.552	29	32
2006	1.156.154	15	47
2007	908.800	11	58
2008	1.826.432	23	81
2009	738.736	9	90
2010	341.884	4	94
2011	94.817	1	95
2012	44.288	1	96
2013	46.473	1	97
2014	270.994	3	100
Fundazioaren gastuak, guztira	7.924.463	100	

Gastu horien azterketa eginda, honakoak azpimarratuko ditugu:

- Fundazioaren gastuen ehuneko 94 2002tik 2010era doan aldiari kontzentratzen dira. 2011tik, haren gastu-jarduera oso mugatuta dago, Nafarroako Gobernuak ezarritako aurrekontu-murrizketak direla eta.

- Langile-gastuak. Fundazioak zuzendari lanpostua besterik ez du izan, eta kontabilizatutako gastuak haren ordainsariak eta haren zama sozialak izan dira. Ez du ez dietarik ez kilometrajerik kobratu.

2002ko irailean kontratatu zen, lanaldi partzialeko goi-zuzendaritzako lan-araubideko kontratu baten bitartez. Hautapena patronatuko bi kidek egin zuten, honako hauetan oinarrituta: eskualdeari buruz zeukan ezagutzaren azterketa, curriculum eta elkarrizketa bat. Patronatuak izendatu zuen.

Zerbitzuak eman dituen aldiari, ordainsariak ehuneko sei jaitzi zitzaizkion 2010ean, 2011n izoztu egin zitzaizkion eta 2012an ehuneko 15 jaitzi zitzaizkion; hori guztia zuzendariak berak eskatuta.

Fundazioaren jarduketak eskasa zela eta, 2013ko abenduan kontratu-harremana boluntarioki azkentzea eskatu zuen, eta onartu egin zitzaion; zegokion kalte-ordainari uko egin zion.

Fundazioa desegiteko prozesuaren harira, berriz ere lanean jardutea eskatu zitzaien, desegite horren gaineko kontrola eta jarraipena egin zezan. Zerbitzu horiek lanbide-jarduera gisa fakturatu zituen -3.630 euro, hain zuzen- eta ustiaketaren bestelako gastuen artean erregistratu ziren.

• Bestelako ustiatze-gastuak Fundazioaren gastuetan garrantzi handiena duenetako bat da, eta bilzen dituen kontzeptuetatik honako hauek dira aipagarrienak:

Kontabilitate-kontzeptua	Zenbatekoa
Errentamenduak	7.278
Bideak eta eraikuntzak	1.350.835
Lurzati urbanizazioa	380.254
Hainbat zerbitzu	1.159.685
Nasera/Nasertic	59.692
Aseguruak	9.319
Banku zerbitzuak eta antzekoak.	380
Publizitatea, argazkilaritza eta zabalkundea	2.377
Ura	707
Elektrizitatea	706
Bulegoko materiala	11.727
Fotokopiagailua	30
Argitalpenak	1.328
Komunikazioak	53
Garbiketa	1.779
Askotariko gastuak	6.443
Bidai-gastuak	1.455
Mezularitza	3.345
Tributuak	19.592
<i>Honaino, guztira</i>	<i>3.016.985</i>
Entitate publikoentzako moneta-laguntzak	4.529.519
Ustiapeneko beste gastu batzuk, guztira	7.546.504

Horietatik, honakoak nabarmendu nahi ditugu:

a) Eragiketen erregistroan ez dira beti kontabilitate-irizpide koherenteak aplikatu, bereziki Fundazioak eta toki entitateek batera finantzatutako jarduketak islatzeko eta beraien jarduketaren guztizko gastua finkatzeko.

b) Fundazioak zuzenean exekutatu dituen hirugarrenentzako inbertsio-jarduketa nagusiak honakoei dagozkie:

Jarduketak	Jarduketaren guztizko zenbatekoa
Lurzati baten urbanizazioa	395.254
Saraguetako erakusketa-gunea	227.180
Azparrengo pilotalekua	306.541
Azparrengo kontzeju-etxea	414.433
Urizko Dorrerako ekipamendua	282.424

Haiek aztertuta, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

Lurzati baten urbanizazioa

Hasiera batean, aurreikusita zegoen Fundazioak berak zuzenean egitea –Vinsa sozietate publikoari besterendu aurretik– Agoitzen 49 etxebizitza babestu eraikitzeke lurzatiaren –Nafarroako Gobernuaren eskutik jaso– urbanizazio gastuak. Salmenta urbanizazioa egin baino lehen formalizatu zenez, egokiago jo zen urbanizazio hori sozietate horrek berak egitea, Fundazioak horretatik heldutako gastuak bere gain hartuta.

Jarduketaren guztizko gastua –395.254 euro– honela xehakatzen da kontabilitatearen ikuspuntutik: eraikuntzen eta konponketen kontua, obrak egiteko kostua biltzen duena –371.254 euro²– eta haien zuzendaritza teknikoarena –9.000 euro–; “hainbat zerbitzu” kontuan, proiektuko ordainsari teknikoak erregistratzen dira, eta 15.000 euro egiten dute.

Obrak egin zituen enpresak Fundazioan 18.563 euroko abal bat aurkeztu zuen, eta kopuru hori ez zitzaion itzuli entitatea likidatu arte.

“Saragüeta: gentes de película” erakusketetarako gizarte eta kultur zentroa

Saraguetako erakusketa zentrorako, hitzarmen bat sinatu da Saraguetako Kontzejuarekin eta Artzibarko Udalarekin. Horren bidez, Fundazioak konpromisoa hartzen du behar diren kontratazioak egin eta haiek kontratatzeke. Proiektuaren aurrekontutik abiatuta, kontratazio-oinarriak landu ziren, eta eskaintzak eskatu zitzaizkien zenbait eraikuntza-enpresari, eta 196.825 euroko prezioan esleitu zen. Exekutututako obrek 211.348 euro egin zuten, ehuneko zazpiko desbideratzearekin.

Jarduketaren guztizko kopurua –227.180 euro– bi kontutan kontabilizatzen da: eraikuntzak eta konponketak, eta obra-ziurtagiri guztiak, bat izan ezik, 152.300 euroko prezioan esleitu ziren; “hainbat zerbitzutan” izenekoan, berriz, proiektuen eta obra-zuzendaritzaren kostua sartzen da –15.833 euro–, bai eta egiteko zegoen obra-ziurtagiri bat ere –59.047–.

Azparrengo pilotalekua eta kontzeju-etxea

Azparrengo Kontzejuan obrak egiteko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Fundazioak eta Azparrengo Kontzejuak hitzarmen bat sinatu zuten 2007an, kontzejuko azpiegiturak hobetzeko. Azpiegitura horiek kontzejuaren etxea eta pilotalekua ziren. Departamentuaren gehieneko finantzaketa 655.431 eurokoa izan zen.

Proiektuen eta obren exekuzioaren kontratazioa Fundazioari esleitu zitzairen, bai Kontzejuak, bai Departamentuak kasuko ikuskatzeak egin ondoren.

Bi jarduketa horietan exekutututako gastuak honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	Pilotalekua	Kontzejuaren etxea
Proiektua	16.572	18.576
Obren zuzendaritza	7.102	7.961
Obrak	282.867	387.896
Guztira	306.541	414.433

Obren kontrataziorako kasuko baldintza-orriak landu ziren. Posta elektronikoko bidez gonbita egin zitzairen enpresa interesdunei eta obrak eskaintza merkeena egindakoari esleitu zitzaizkion.

Bi obren amaierako kostuan, esleipen-kopuruaren aldean, izandako desbideratzea ehuneko zortzikoa izan zen

Bi obra horien guztizko gasturako –bere osotasunean eraikuntzen eta konponketen kontusailari egotzia– Herri Lan Departamentuak diru-laguntza eman zuen.

² Zenbateko hori bat dator Vinsak kontratua esleitzekoarekin.

Urizko Dorrerako ekipamendua

Dorre hori kultur interesekotzat jota dago, eta Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da. 2003an Fundazioari laga zitzaion, ustiatu eta kudea zezan.

2006tik 2009ra, Kultura Departamentuak finkatze, zaharberritze eta egokitze lanak egin zituen, hura hotel bihurtzeko. Jarduketa horrek bi milioi euro inguruko kostua izan zuen.

Fundazioak hotel horretarako ekipamenduaren eta altzarien finantzaketa hartu zuen bere gain, baina kontrataziorako prozedura administratiboen kudeaketa eta izapidetzea Kultura Departamentuak egin zituen, interes kulturalerako eraikina baitzen.

Hauexek dira egindako gastuaren xehetasunak:

Urizko Dorrea	Zenbatekoa
Altzariak	237.432
Argiztapena	10.062
Arropa zuria	8.689
Ostilamendua	4.036
Lorategia	14.825
Harrizko elementu apaingarriak	7.380
Guztira	282.424

Gastuaren ehuneko 16 –45.000 euro– Europako funtsekin finantzatu zen, eta ekipamenduaren gastu txikiak finantzatzera bideratu zen.

Azterketa eginda, eta ondorio gisa, aipatu behar dugu Fundazioak zuzenean kudeatutako kontratazio-prozesuak materialki kontratazio publikoari buruzko araudiaren arabera gauzatu zirela.

c) “Hainbat zerbitzu” delakoaren barruan, kopuruaren ia ehuneko 70 –804.950 euro– Fundazioak enkargatutako proiektuak idazteko ordainsariei dagokie, bai jarduketetarako, bai Konfederazioari aurkeztu ahal izateko proiektu-zorro bat edukitzeko, kasuko finantzaketaren arabera exekutatu ahal zitezen. Proiektu horietako baten exekuzioa partikular batek finantzatu zuen zuzenean.

Egin bai baina exekutatu ez ziren proiektu horiek aktibo bat dira, etorkizunean administrazio publikoek gauzatu ahal izanen dituztenak.

Halaber, nabarmentzekoa da Fundazioak “Vivir para Vivir” liburua argitaratu zuela, inguruneari buruzko azterlan etnologiko oso bat.

d) Entitate publikoentzako moneta-laguntzak. Kontuan hartuta a) puntuan adierazitakoa, kontu honek islatzen ditu Fundazioak toki entitateei egindako ekarpenak, kultur eta kirol jardueretan inbertitzeko eta halakoak dinamizatze hainbat jarduketa kofinantzatzeko; gastu horrek –4,53 milioi– guztizko gastuaren ehuneko 57 egiten du. Aurreko kopurua, non Fundazioaren likidazioaren soberakinaren banaketan sartzen baita, honako taularen arabera banatu zen:

Udala	Zenbatekoa	portzentajea	Euroak biztanle bakoitzeko, 2014ko biztanleriaren gainean
Agoitz	1.598.444	35	608
Artzi	1.487.485	33	5.275
Longida	594.301	13	1.869
Orotz-Betelu	849.289	19	5.444
Toki entitateentzako diruzko laguntzen guztizkoa	4.529.519	100	1.338

Kontu honetan, Fundazioak toki entitateei ematen dien finantzaketa jasotzen da, Nafarroako Gobernuak finantzatzen ez duen inbertsioaren zatiari dagokiona. Hartara, oro har, honakoa izan zen jarraitutako prozedura: Alkateek beren udalerrietan beharrezkoak ziren obrak azaltzen zituzten, eta unean-unean Nafarroako Gobernuak finantzatzen zituen inbertsioen arabera batzuei ala besteei

ematen zitzaizen lehentasuna. Aipatutako toki entitateei finantzatzea zegokien inbertsioen zati hori Fundazioak hartzen zuen bere gain, eta zerrenda hori kasuko lankidetzaz hitzarmenetan islatzen zen. Jarduketa horiek guztiak aho batez onetsi zituen Patronatuak.

Fundazioak Nafarroako Gobernuaren zuzeneko finantzaketa osatzeko formula horrek aukera eman die udalei hainbat inbertsio egiteko, beren baliabideekin nekez eginen zituzketenak. Inbertsio horien guztizko kostuak 15 milioi inguru egin du.

Aurreko jarduketetz gainera –gastuaren ehuneko 95 egiten dute– ehuneko bost udalek berek zuzenean egindako kultura-, kirol- eta turismo-jarduketetarako laguntzei dagozkie, bai eta partikularrentzako laguntzei ere –13.688 euro, guztira–, funtsean inbertsio txikiak egiteko, liburuak argitaratzeko eta abarretarako.

Laguntzak eta hitzarmenak jaso ahal izateko, egindako gastua justifikatzen duten fakturak aurkeztu behar izan dira.

6.a Fundazioaren diru-sarrerak

Fundazioak 2002tik 2014ra 7,75 milioiko diru-sarrerak izan ditu guztira. Diru-sarrera horiek honela banakatzen dira, galeren eta irabazien kontuari jarraituz:

2002-2014 urteetako diru-sarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Negozio-zifraren zenbateko garbia	122.228	2
Ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	6.380.571	82
Ibilgetu materialaren emaitzak	1.169.001	15
Diru-sarrera finantzarioak	78.417	1
Fundazioaren diru-sarrerak, guztira	7.750.217	100

Ekitaldien arabera, aurreko diru-sarrerak taula honetan adierazitakoaren arabera banatzen dira:

2002-2014 urteetako diru-sarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoa	Metatutakoa (%)
2002	2.734	0	0
2003	93.762	1	1
2004	193.294	2	3
2005	2.266.537	29	32
2006	1.160.220	15	47
2007	925.937	12	59
2008	1.818.588	23	82
2009	750.799	10	92
2010	349.222	5	97
2011	117.427	2	99
2012	22.527	0	99
2013	42.594	1	100
2014	6.576	0	100
Fundazioaren diru-sarrerak, guztira	7.750.217	100	

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Gastuen ataletan gertatzen den bezala, eta inguruabar berdinegatik, gastuek, 2010era arte, guztizkoaren ehuneko 97 egiten dute. Urte hori igarota, diru-sarrerak garrantzi eskasa dute.

- Negozio-zifraren zenbatekoaren barruan, diru-sarreraren zati handiena hainbat higiezin errentan ematearen truke lortutako diru-sarrerei dagokie (hotela, jatetxea, jubilatuen kluba, apartamentu turistikoa eta profesionalentzako bulegoa): 115.442 euro dira guztira. Fundazioa desegitearekin, higiezin horiek itzuli zaizkien administrazio publikoek, printzipioz, kontratu horiek subrogatu egin dituzte.

Higiezin horien ustiaketaaren esleipena prozedura irekien bitartez egiten da.

- Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk. Horren barruan sartzen dira, funtsean, Nafarroako Gobernutik eta Europar Batasunetik jasotako diru-laguntzak, honako xehetasunei jarraituz:

2002-2014 urteetako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoa
Nafarroako Gobernuak funtzionamendurako emandako diru-laguntzak	1.059.000	
Nafarroako Gobernuak inbertsioetarako emandako diru-laguntzak	5.173.985	
<i>Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, guztira</i>	<i>6.232.985</i>	<i>98</i>
Europar Batasunaren diru-laguntzak	147.338	2
Diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak, guztira	6.380.323	100

a) Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak. Eraitzen kontuari egotzitako Nafarroako Gobernuaren aurreko diru-laguntzez gainera, Fundazioak 380.753 euroko kopuru berdina egiten duten diru-laguntzak jasotzen ditu, bere higiezina finantzatzekoak; diru-laguntza horiek balantzen ondare garbiari egozten zaizkio.

Laburbilduz, Fundazioak, guztira, 6,61 milioi jaso ditu Nafarroako Gobernutik.

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den diru-laguntza bakoitzaren xedea eta Nafarroako Gobernuko zein departamentuk eman duen:

Nafarroako Gobernuko departamentuen diru-laguntzak, 2002-2014 aldian	Zenbatekoa	Helburua	Ekitaldiak
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	1.059.000	Funtzionamendua	2003tik 2010era
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	2.750.186	Inbertsioak	2005etik 2007ra
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	1.621.567	Udalen inbertsioak eta ekarpenak	2008 eta 2009
Herri-lanetako Departamentua	565.543	Inbertsioak	2008
Etxebizitzako eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentua	236.689	Inbertsioak eta ekarpenak Udalak	2010
Etxebizitzako eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentua	177.358	Fundazioaren ibilgetu berekirako inbertsioak	2009 eta 2010
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	203.395	Fundazioaren ibilgetu berekirako inbertsioak	2009
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, guztira	6.613.738		

Diru-laguntza horiek bideratu dira bai zuzenean, bai udalen bitartez Fundazioak exekutututako proiektuak finantzatzera.

b) Europar Batasunaren diru-laguntzak Leader Plus programari dagozkio, eta funtsean bideratzen dira ekipamenduak, kultura- eta josteta-jarduerak eta urtegiaren inguruneke fauna eta paisaia babesteko jarduketak finantzatzera.

7.a Fundazioaren ibilgetua

2003ko ekainean, Nafarroako Gobernuak Fundazioari lagapena egiteko hitzarmena sinatu zen. Haren bitartez, Gobernuak doan lagatzen zizkion zenbait ogasun, batez ere Nagoren eta Agoitzen kokatuak. Gainera, aipatzen zen Nagoreko lurzatietatik sei salmentara bideratu behar zirela, urtegiak ukitutako Artozkiko bizilagunei bizitokia emateko. Finka horien tasazio bat egin zen, eta 522.718 euroko zenbatekoa kontabilizatu zen.

Artozkiko Kontzejua husteko eta azkentzeko oinarriko akordioan, 2003ko maiatzean sinatuan, aipatzen zen Fundazioak kontzejutik aterarazitako bizilagunei Nagoreko sei eta Azparrengo bi lurzati salduko zizkiela, haietan familia bakarreko 10 etxebizitza eraikitzeko.

Hartara, 2004an, lurzati horiek besterendu ziren. Nagorekoak akordioan finkatutako zenbatekoan saldu ziren, 36.060 euro, tasazioaren zenbatekoarekin bat; Azparrengo lurzatiak, berriz, Fundazioak erosi zituen, eta kopuru berean, 42.372 euro, besterendu zituen.

2011n, enkante publiko bidez Nagoreko bi lurzatiak saldu ziren, 73.923 euroko prezioan. Haien tasazio-balioa 67.484 eurokoa izan zen.

2005ean, hitzarmen bat sinatu zen Vinsarekin, Agoitzen babes ofizialeko 49 etxebizitza sustatzeko, 146.819 euroan tasatutako lurzati batean. Lurzatia urbanizatu ondoren, haren salmenta 1.045.477 euroan finkatu zen; urbanizazio-gastuak 395.254 eurokoak izan ziren.

Salmentaren baldintzetan ageri zen Fundazioari beheko solairuetan kokatutako 386 m² erabilgarriko lokalak eskuratzea, 186.967 euroan baloratuak. Lokal horien zati bat, 101 m², Nasursari saldu zitzaizkion, profesionalentzako erabilera anitzeko zentro bat jartzeko. Aurrerago, zentro hori Fundazioari laga zitzaion, kudea zezan. Lokalen gainerako zatian, obrak egin ziren, 322.159 eurokoak, jubilatuentzako zentro bat eraikitzeko. Zentro hori, gero, Agoizko Udalarari alokatu zitzaion.

"Mariano Garcíaren etxea balioan jartzea" proiektuaren barruan, Fundazioak 2009an haren sortetxea erosi zuen, 60.000 euroko prezioan. Mariano García Agoizko organista eta musikagilea izan zen. Eraikina eraitsi zen, eta hartan profesionalentzako bulegoen zentro bat eraikitzea aurreikusita bazegoen ere, Fundazioak azken garaietan izan zituen finantza-zailtasunak tarteko, ezin izan zen halakorik egin. Gaur egun, hutsik dago orubea.

Horrenbestez, Fundazioak, bere ibilgetuarengatik, 1,17 milioi euroko kontabilitate-emaizak lortu zituen.

Fundazioa desegiteko fasean, haren ibilgetuaren kontabilitate-balioa 801.245 eurokoa zen, eta kopuru hori Nafarroako Gobernuari itzuli zitzaion. Gobernuak lagatako ondasunen eta hari itzulitakoaren arteko kontabilitate-aldea 278.527 eurokoa zen.

V.3. HURBILKETA BAT ITOIZKO URTEGIAREN INGURUNeko EGOERA SOZIO-EKONOMIKORA (2002 ETA 2014).

8.a Hurbilketa bat udalerrien egoera sozio-ekonomikora

Abiapuntutzat hartuta oro har udalen arabera xehakaturako gisa horretako informaziorik ez dagoela, Fundazioan parte hartzen duten udalerriek honako ezaugarriak eta bilakaera izan dituzte adierazle ekonomiko batzuei erreparatuta:

- Horietatik bi udalerrri soil dira –Agoitz eta Orotz-Betelu– eta beste bi, berriz, udalerrri konposatuak dira –Artzibar eta Longida–. Azken bi horiek zazpi kontzejuk –Artzibar– eta bost kontzejuk –Longida– osatuta daude, baina haietan beste toki biztanledun eta biztanlegabe batzuk ere badaude. Horrenbestez, 274 km²-ko zabaleran, lau udalerrri eta 12 kontzeju daude, eta horiek, aldi berean, gizarte zerbitzuen mankomunitate batean, liburutegi-zerbitzurako mankomunitate batean eta hiri-hondakinatarako bi mankomunitatetan sartuta daude.

- Haien udal barrutietan, toki biztanlegabe batzuk badaude edo eraikin hustuak, non biztanle-asantamenduak jasota baitaude.

- 2002-2014 urteetako populazioa Aztertutako urte-tartean, udalerrri horietako biztanle-kopuruak ehuneko 25 egin du gora. Portzentaje hori Nafarroako batez bestekoa –ehuneko 12– baino handiagoa da. Hartara, honakoak aurkituko ditugu, udalerriz udalerriz:

Udalerrria	Biztanleria		Aldea
	2002	2014	
Agoitz	1.892	2.629	737
Artzi	291	282	-9
Longida	299	318	19
Orotz-Betelu	219	156	-63
Fundazioko udalerrriak, guztira	2.701	3.385	684
Nafarroa, guztira	569.628	640.790	71.162

Hau da, biztanle-kopuruak 684 biztanletan egin du gora. Batez ere, Agoitzen gertatu da igoera hori, zeren eta udalerrri horretako biztanle-kopuruak ehuneko 39 egin baitu gora. Artzibarrek eta Orotz-Beteluk, berriz, biztanleak galdu dituzte aldi horretan. Longidan, berriz, ehuneko seiko hazkunde gertatu da.

Agoizko udalerrriak jarraitzen du eskualdeko erakarpen-gune gisa izaten.

Oro har, bi ekitaldien artan, generoen araberako lehengo proportzioari eutsi zaio: gizonezkoen ehuneko 51a eta emakumezkoen ehuneko 49a.

2014an, atzerritarrak guztizkoaren ehuneko 10 dira, Nafarroako batez bestekotik –ehuneko bederatzi– zertxobait gora. Biztanle atzerritar horiek, funtsean, Agoitzen ezarri dira.

Halaber, biztanleriaren halako gaztetze bat antzeman dugu, eta 2014an Nafarroako batez bestekora iritsi da horretan:

Udalerrria	2002			2014		
	16tik behera	16 eta 64 bitarte	65 eta gehiago	16tik behera	16 eta 64 bitarte	65 eta gehiago
Agoitz	250	1.231	411	496	1.717	416
Artzi	26	187	78	46	169	67
Longida	30	194	75	44	210	64
Orotz-Betelu	6	129	84	2	88	66
Fundazioko udalerrriak, guztira	312	1.741	648	588	2.184	613
<i>Ehunekoa</i>	12	64	24	17	65	18
Nafarroa	81.776	384.932	102.684	106.775	414.800	119.215
<i>Ehunekoa</i>	14	68	18	17	65	18

Hau da, 2002an, udalerrri horietako 65 urtetik gorako biztanleak ehuneko 24 ziren –ehuneko sei gehiago Nafarroako batez bestekoan baino–; 2014an, berriz, ehuneko 18 dira, Nafarroako batez bestekoaren pare. Azken batean, 2014an, udalerrri horietako biztanleriaren adinaren arabera egitura Nafarroako batez bestekoaren pare dago.

Halaber, udalerrri horiei dagokienez, nabarmendu beharra daukagu ezen igoyeraren portzenta-gerik handiena 16 urtetik beherakoen tartean antzematen dela, ehuneko 88rekin; bitarteko tartean, berriz, ehuneko 25 egin du gora; zaharreneen tartea, berriz, ehuneko bost egin du behera.

Aktiboen adierazlea –hau da, 15 eta 64 urte bitarteko biztanleek biztanleriaren guztizkoan zenbat egiten duten–, aztertutako aldirian, ehuneko 65ean dago Agoitzen; Artzibarren, berriz, ehuneko 64tik ehuneko 60ra jaitsi da; Longidan, ehuneko 65etik ehuneko 66ra igo da, eta Orotz-Betelun, azkenik, ehuneko 59tik ehuneko 56ra jaitsi da.

Mendekotasunaren adierazlearen bilakaera –hau da, guztizko biztanlerian 16 urtetik beherakoek eta 65 urtetik gorakoek zenbat egiten duten– ehuneko 54 inguruko zenbatekoari eusten dio Agoitzen; Artzibarren ehuneko 56tik 67ra pasa da; Longidan, ehuneko 54tik ehuneko 51ra, eta Orotz-Betelun, azkenik, ehuneko 70etik ehuneko 77ra.

Azkenik, biztanleriaren dentsitateari dagokionez (Km² bakoitzeko biztanleak), honako hau da bilakaera:

Udalerrria	Biztanle-dentsitatea	
	2002	2014
Agoitz	143,3	199,2
Artzi	2	1,9
Longida	3,3	3,5
Orotz-Betelu	9,3	6,6

Laburbilduz, 2002tik 2014ra udalerrri horiek beren biztanle-kopurua handitu dute, eta biztanleriaren halako gaztetze bat gertatu da.

- 2005etik 2014ra erregistratutako langabezia Enplegu-tasa eta langabezia-tasa kalkulatzeko izan den aldaketa metodologikoaren ondorioz, eta urte arteko alderaketa homogeneoa eta koherentea izan dadin, 2005eko maiatzetik aurrerako datuak hartu ditugu.

Hartara, 2005eko maiatzetik 2014ko abendura, honako hau da aztertutako udalerrri guztien langabeziaren bilakaera eta Nafarroako guztizkoarekiko alderaketa:

Erregistratutako langabezia	2005	2014
Langabezian dauden pertsonen kopurua	108	271
Udalak-Langabeziak populazio aktiboaren guztizkoan zenbat egiten duen	6	12
Nafarroa-Langabeziak populazio aktiboaren guztizkoan zenbat egiten duen	5	12

Hau da, 2005etik 2014ra bikoiztu eta gehiago egin dela aztertutako udalerrrien langabezi tasa. Nafarroako batez bestekoarekin alderatuta, bilakaera orokorra antzekoa da. Logikoa denez, aurreko datuek beren zabaltasun osoan erakusten dituzte krisi ekonomikoak enpleguan izan dituen eraginak.

Hurrengo taulan langabeziaren gutzizko bolumena erakusten dugu, adinaren, sexuaren eta sektore ekonomikoaren arabera, aztertutako udalerriei dagokienez:

Fundazioko udalerriak	2005	2014	Igoera, ehunekotan
Langabetuen kopurua	108	271	151
25 urtetik beherakoa	12	18	50
25-44 urte	60	124	107
45 urte baino gehiago	36	129	258
Gizonezkoak	33	130	294
Emakumezkoak	75	141	88
Nekazaritza		9	
Industria	32	52	63
Eraikuntza	15	22	47
Zerbitzuak	54	170	215
Aurretik lanik gabe	7	18	157

Hau da, erregistratutako langabeziak ehuneko 151 egin du gora, eta iguera hori kontzentratu da 45 urtetik gorako gizonezkoetan, zerbitzu-sektoreetan eta aurretik enplegurik izan gabekoetan.

Azkenik, erakutsiko dugu langabeziaren portzentajeak udalerrri bakoitzaren biztanleria aktiboaren gutzizkoan zenbat egiten duen:

Udalerrria	Langabeziak populazio aktiboan zenbat egiten duen	
	2005	2014
Agoitz	6	14
Artzi	2	8
Longida	6	8
Orotz-Betelu	2	7

Hau da, Agoitz da bi ekitaldi horien artean magnitude horretan baliorik handiena erakusten duena. Hala-ber, nabarmentzekoak dira Artzibarren eta Orotz-Betelun izandako igoerak.

- Udal azaleraren sailkapena. Abiapuntutzat hartuta erabilgarri dagoen urtea 2001ekoa dela, 2014ra bitarte alderatu dugu udal azalera nola dagoen banatuta hiri-lurren eta landa-lurren artean.

Udalerrria	Hedadura (ha)	Landa-lurrak (ha)		Hiri-lurrak (ha)	
		2001	2014	2001	2014
Agoitz	1.313,20	1.225,21	1.192,72	87,99	120,48
Artzi	14.635,62	14.614,74	14.617,29	20,88	18,33
Longida	9.071,72	9.024,39	9.018,17	47,33	53,55
Orotz-Betelu	2.346,05	2.333,77	2.333,54	12,28	12,51
Guztira	27.366,59	27.198,11	27.161,72	168,48	204,87

Aldaketarik garrantzitsuena Agoizko Udalaren hiri-azaleraren igoeran aurkitu dugu.

Haren hirigintza-antolaketa nolabaiteko antzinatasuna duten udal planetan islatuta dago: bata 1997koa da eta bestea 2003koa.

• Ibilgailuak. 2002ko eta 2013ko datuei erreparatuta, udalerrri horietako ibilgailu kopuruak ehuneko 35 egin du gora. Hona xehetasunak:

Ibilgailu kopurua	2002	2013
Turismoak	1.089	1.419
Motozikletak	67	154
Furgonetak eta kamioiak	404	507
Autobusak	17	16
Traktore industrialak eta atoiak	11	37
Bestelako ibilgailuak	28	52
Fundazioko udalen ibilgailuak, guztira	1.616	2.185
<i>Ibilgailuen kopurua per capita</i>	<i>0,60</i>	<i>0,65</i>
Nafarroako ibilgailuak, guztira	355.521	431.904
<i>Ibilgailuen kopurua per capita</i>	<i>0,62</i>	<i>0,67</i>

Epe berean, Nafarroako guztizkoan, ibilgailu-kopuruaren igoera ehuneko 21ekoa izan zen; hau da, ehuneko 14 txikiagoa aztertutako udalerrietan izandakoa baino.

Per capita begiratuta, berriz, ikusten da ibilgailu-kopuruaren hazkundera antzekoa dela Nafarroan eta aztertutako udalerrietan.

VI. AMAIERAKO ONDORIOA EDO LABURPENA

Itoizko urtegiaren eraikuntzak afekzio handiak izan zituen haren ingurunean, eta, horrenbestez, ukitutako udalerrietan.

Afekzio horiek ahal zen guztian zuzentzeko xedez, antzemandako hainbat egitura- eta lurralde-desorekak konpontzeko eta garapen ekonomiko eta soziala indartzeko oinarriak ezartzeko, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa sortu zen, eskualdearen, haren biztanleen eta ukitutako eragile sozial eta administrazio publikoen elementu bateratzaile eta dinamizatzaile moduan.

Hartara, Fundazioaren patronatu bat eratu zen, non Nafarroako Gobernuaren ordezkariak –entitate sortzailea baitzen–, ukitutako udalerrietako ordezkariak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko ordezkariak –urtegiaren ardura duen entitatea baita– egonen ziren.

Fundazioaren xedek betetze aldera, urtegiaren ingurunearen garapen integralerako plan bat onetsi zen, non "bizi kalitatea hobetzearen" oinarritzko helburutik abiatuta, egin beharreko jarduketak nagusiak eta haietarako finantzabideak aipatzen diren. Plan horrek 2004tik 2007ra bitarteko denbora-horizontea zeukan hasiera batean.

Fundazioaren jarduera modu erregularrean garatu da 2011ra arte. Urte horretan, Nafarroako Gobernuak egindako aurrekontu-doikuntzen ondorioz, Fundazioaren proiektuak finantzatzeko funtsen ekarpena deuseztatu zen. Data horretatik aurrera, jarduera minimoa izan da, eta 2014an hura desegin eta azkentzeari ekin zaio.

Horrek agerian jartzen du ezen, foru sektore publikoan sartutako enteak sortzerakoan, aurrez aztertu beharra dagoela zer gaitasun duten finantza-baliabide bereki eta nahikoak sortzeko; edo, bestela, horretarako legezko tresnak eman behar zaizkie, zertarako eta –haiek sortzea beharrezkotzat jotzen bada– normaltasunez garatu ahal ditzaten esleitu zaizkien interes publikoko zereginak. Horrela egiten ez bada, haien jarduketa sustapen-, bitartekaritza- eta dinamizazio-zereginetara mugatzen da, eta litekeena da horiek nahikoak ez izatea haien sorrera justifikatzeko, nahiz eta aztertutako kasuan aipagarriak izan diren. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra daukagu, halaber, Fundazioaren kasuan langile-egitura gutxieneko bat eduki duela, lanaldi partzialeko zuzendari-lanpostura mugatua. Horri dagokionez, Fundazioko antzinako arduradunek adierazi digutenaren arabera, diru-laguntza publikorik gabe ere, Fundazioak lanean jarrai zezakeen sortzen zituen baliabideekin, baina ez zuen gaitasunik edukiko inbertsio berriak egiteko, ondasun higiezin besterentzetik lortutako etekinekin finantzatutakoez aparte.

Desegin arte, bai Fundazioak, bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 17 milioi inguru egiten duten jarduketak egin dituzte. Kopuru horrek garapen planean aurreikusitakoaren ehuneko 60 egiten du. Fundazioak berak emandako laguntzek aukera eman zuten, gainera, toki entitateek beste 10 milioi euro inbertitzeko –Nafarroako Gobernuaren toki azpiegituretako planen bitartez finantzatuak–; halakoak, bestela, ezin izanen ziren egin.

Desegiteko momentuan, Fundazioak exekutatzeko zeukan 6,17 milioi euroko kopuruan zenbaitzatsitako jarduketan aurreikuspena. Halaber, 17,92 milioi euro egiten duten beste proiektu batzuk jasota daude, Ingurumen Ministerioaren finantzaketa lortzeko zain daudenak.

Ez dago jasota ea administrazio publikoek etorkizunean exekutatu dituzten egiteke geratu diren jarduketa horiek.

2002tik 2014ra bitarteko urteko kontuen erregulartasunari buruzko auditoriak ondorioztatzen du haiek, oro har, islatu egiten dutela garatutako jarduera eta haien eragiketetan legezketasunaren printzipioa bete egin dela.

Epe horretan, 7,92 milioi gastatu dira guztira. Horietatik, ehuneko 95 txosten honetako 2. eranskinean islatzen diren jarduketan multzora bideratu dira eta, funtsean, honakoei buruzkoak dira: urtegiaren ingurunerako proiektu estrategikoak eta Fundazioa osatzen duten udalerriek beren azpiegiturek egokitzekoak; udalerrri bakoitzean oinarritzko tokiko zerbitzu publikoak hobetzera zuzendutako jarduketa zehatzak; eta turismoko eta aisiarako baliabideak indartzeko jarduerak, Itoizko urtegia bezalako elementu berezian oinarrituak.

Beharrian horiek finantzatzeko, Fundazioak 7,75 milioi euro jarri ditu guztira, ia guztiak Nafarroako Gobernuaren eskutik hartutakoak. Baliabide horiekin aurreko jarduketak finantzatu dira, bai zuzenean, bai ukitutako toki entitateen finantzaketa-beharrak osatuz.

Jardun duen urteetan, Fundazioak ez zuen inongo zorpetzerik izan.

Fundazioak kudeatutako eragiketez gainera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, Itoizko urtegiaren lurralde lehengoratzeko planaren barruan, 9,33 milioi euroko obrak egin zituen.

Hala eta guztiz ere, jotzen dugu ezen, garapenerako plan estrategiko integrala egiteko egin zen ahalegina gorabehera, hartan planteatutako helburuen betetze-maila neurtzeko adierazle-sistematik ez ezartzea muga bat izan dela gure lanerako, ezin izan baitugu egiaztatu noraino bete den urtegiaren inguruneke bizi-kalitatea hobetzeko helburu orokorra.

Horrenbestez, Ganbera honek egindako azterketaren mugekin ere, ondoriozta dezakegu ezen, krisi ekonomikoaren eraginarekin ere, aztertutako eskualdearen egoera sozio-ekonomikoak hobera egin duela, oro har, 2002tik. Hurrengo egitateak aipa ditzakegu ondorio hori zuzenesteko:

- Udalerrien oinarrizko azpiegiturak hobetu dira.
- Tresnak eman zaizkie beren baliabideak indartzeko, bereziki naturaren, aisiaren eta turismoaren arloetan, bai eta landa garapen integralaren arloan ere.
- Biztanleria Nafarroakoaren batez bestekoaren gainetik hazi da, eta haren halako gaztetze bat antzeman dugu.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean 2015eko abuztuaren 27an

Lehendakaria,

Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA FUNDAZIOAREN BALANTZEAREN BILAKAERA ETA GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA 2002tik 2014ra BITARTEAN.

Hurrengo tauletan erakusten dugu nolako bilakaera izan duten Fundazioaren balantzeek eta emaitza-kontuek eratu zen urteik hasi -2002- eta likidatu zen urtera arte -2014-, haren urteko kontuei jarraituz.

1.1. ITOIZ-NAFARROAKO UBIDEA FUNDAZIOAREN EGOERA-BALANTZEA (2002-2014)

AKTIBOA	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002
A) Aktibo ez-korrontea	801.245	801.245	801.245	801.245	869.530	756.578	544.122	527.880	528.238	526.807	486.658	522.718	
II. Ibilgetu materiala	346.747	346.747	346.747	346.747	420.487	756.578	544.122	527.880	528.238	526.807	486.658	522.718	
III. Higiezinetako inbertsioak	454.498	454.498	454.498	454.498	449.044								
B) Aktibo arrunta	8.027	289.737	290.864	313.933	520.402	708.321	1.498.087	834.025	657.893	673.762	386.016	311.424	299.719
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	4.998	38.656	14.361	12.912	254.222	435.081	969.181	794.746	528.789	565.558	38.385	98.794	976
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak		245.000	250.000	93.000	200.000	263.000	70.000				300.000	200.254	270.000
VII. Epe laburreko ekintzak				621				38.164					
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	3.029	6.081	26.503	207.400	66.179	10.240	458.907	1.115	128.904	108.205	47.630	12.376	28.743
Guztira	809.272	1.090.982	1.092.109	1.115.179	1.389.932	1.464.899	2.042.209	1.361.905	1.185.931	1.200.569	872.674	834.142	299.719
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002
A) Ondare garbia	808.541	1.072.959	1.076.839	1.098.600	1.139.992	1.018.371	750.747	721.991	704.854	700.788	842.622	828.482	298.501
A1) Funtz berekiak	138.834	403.252	407.132	428.893	402.801	394.490	374.307	382.151	365.014	360.949	355.964	305.764	298.501
I. Sorrerako zuzkidura	402.678	402.678	424.439	401.829	390.271	390.271	382.151	304.572	300.506	300.506	300.506	300.506	300.506
III. Erreserbak	4.453	4.453	4.453	4.453	972								
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-3.880			4.219	-7.844			60.443	60.443	55.458	5.258	-2.005	
VII. Ekitaldiko emaitza	-264.418	-3.880	-21.761	22.610	7.339	12.063	-7.844	17.137	4.066	4.985	50.200	7.263	-2.005
A3) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	669.707	669.707	669.707	669.707	737.191	623.881	356.439	339.839	339.839	339.839	486.658	522.718	
B) Pasibo ez-korrontea			4.800	1.580	800	20.858							
II. Epe luzeko zorrak			4.800	1.580	800	20.858							
C) Pasibo korrontea	731	20.023	10.471	14.999	249.140	425.670	1.290.605	284.704	125.867	144.571	30.052	5.660	1.218
III. Epe laburreko zorrak		11.930	7.530					284.704	125.867	144.571	30.052	5.660	1.218
V. Merkataritzako hartzekodunak	731	8.093	2.940	14.999	249.140	425.670	1.290.605						
F) Arrisku eta gastuetarako hornidurak								355.210	355.210	355.210			
Guztira	809.272	1.092.982	1.092.109	1.115.179	1.389.932	1.464.899	2.042.209	1.361.905	1.185.931	1.200.569	872.674	834.142	299.719

1. oharra: 2006tik 2011ra doazen ekitaldietako urteko orokorrak auditoria-enpresa berak auditatu zituen.

2. oharra: 2008tik urteko kontuak Kontabilitate Plan Orokor berriaren arabera aurkeztu dira.

3. oharra: 2014ko kontuak kontabilitate-printzipio eta -irizpide egokien egin ziren, haren desegitea eta azkentzea islatzeari begira.

1.2. ITOITZ-NAFARROAKO UBIDEA FUNDAZIOAREN GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA (2002-2014)

Galerak eta irabaziak	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002
Negozio-zifaren zenbateko garbia	39.786	18.707	38.946	24.788	732.559	1.802.551	908.186	1.157.000	146.819	189.560	90.000		
Ustiapenaren bestelako diru-sarrerak			248	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089	321.089
Langile-gastuak	-23.861	-27.678	-34.087	-35.322	-37.149	-37.227	-35.787	-34.927	-33.594	-32.521	-31.635	-31.635	-4.905
Bestelako ustiatze-gastuak	-267.668	-22.567	-16.610	-60.730	-306.204	-696.165	-1.788.847	-800.648	-628.679	-452.211	110.573	-54.865	-435
Dirutako laguntzak eta beste								-72.007	-492.548	-1.775.747			
Ibilgetuaren amortizazioa					-358	-358	-358	-358					
Ibilgetua besterentzetik heldu den nariadura eta emaitza					14.440								
Beste emaitza batzuk				73.023	-5.064				898.659				
Ustiapeneko emaitza	-267.668	-6.642	-25.581	17.400	3.993	8.263	-23.881	-614	846	-637	46.467	3.500	-4.740
Diru-sarrerara finantzarioak	6.576	2.807	3.820	5.210	3.345	3.800	16.037	17.751	3.220	5.622	3.734	3.762	2.735
Finantza-gastuak	-3.326	-45											
Emaitza finantzarioa	3.250	2.762	3.820	5.210	3.345	3.800	16.037	17.751	3.220	5.622	3.734	3.762	2.735
Ekitaldiko soberakina	-264.418	-3.880	-21.761	22.610	7.339	12.063	-7.844	17.137	4.066	4.985	50.200	7.263	-2.005

1. oharra: 2006tik 2011ra doazen ekitaldiak urteko orokorrak auditoria-enpresa berak auditatu zituen.

2. oharra: 2008tik urteko kontuak Kontabilitate Plan Orokor berriaren arabera aurkezten dira.

3. oharra: 2014ko kontuak kontabilitate-printzipio eta -irizpide egokiak egin ziren, haien desegitea eta azkentzea islatzeazti begira.

2. ERANSKINA FUNDAZIOAK EGINIKO JARDUKETEN LABURPENA 2002tik 2014ra BITARTEAN.

Hurrengo tauletan erakusten ditugu Fundazioak 2002tik 2014ra bitarteko urteetan egindako jarduketak.

2.1 INGURUNERAKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Ingurunerako proiektu estrategikoak		
Irati ibaian ur-amilen eta ur lasaien ubide bat egiteko aurreproiektua		
Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluri buruzko azterlan etnografikoa		
Itoizko presari buruzko informazio- eta zabalkunde-liburuxka		
Itoizko urtegiaren inguruneko baliabideen gidaliburua		
Itoizko urtegiaren inguruneko bide balizatuen gidaliburua		
Itoizko urtegiaren inguruneko etnografiari buruzko oharak		
San Lorentzoko ur-faunaren behatokia		
Dike osagarrien udalez gairako plan sektoriala		
Presa balioan jartzeko proiektua		
"Vivir para vivir" argitalpen etnografikoa		
Oinezkoentzako, bizikletetarako eta zaldian ibiltzeko ibilbideen sarea		
Itoiz-Nafarroako Ubidea Fundazioaren web-orria		
Inguruneko ibilbideen sarea		
Agoitz		
AO.1	San Lorentzoko ermitaren ibilbidea	Mendi igoera
AO.2	Bi ezpaten begiratokiaren bidea	Historikoa
AO.3	Agoizko elur-zuloaren bidea	Etnografikoa
AO.4	Autzolako zubiaren bidea	Mendi igoera
AO.5	Kastroaren bidea	Historikoa
Orotz-Betelu		
OB.1	Arrizabalgo harrizaren bidea	Mendi igoera
OB.2	Arizdolarien bidea (1. tartea)	Natura-bidea
OB.3	Arizdolarien bidea (2. tartea)	Mendi igoera
OB.4	Iñarbeko arroilaren begiratokia	Natura-bidea
OB.5	Zilarziloko zilar meategiaren bidea	Etnografikoa
Artzibar		
A.1	Hiru mendi-kaskoen bidea	Natura-bidea
A.2	Pottoken bidea	Etnografikoa
A.3	Bordetako bidea	Etnografikoa
A.4	Corona mendirako igoera	Mendi igoera
A.6	Herrietako bidea	Natura-bidea
A.7	Lusarretako garaiaren bidea	Etnografikoa
A.8	Pakoren erreka bidea	Natura-bidea
A.9	Makien bidea	Historikoa
A.10	Txinturreneko potxearen eta Gazteluko arroilaren begiratokia	Natura-bidea
A.11	Zaldun ospitalarien bidea	Historikoa
A.12	Muniango ibilbidea	Mendi igoera
A.13	Elke/Pausarango igoera	Mendi igoera
A.14	Baigurako igoera	Mendi igoera
A.15	San Martingo bidea	Natura-bidea
A.16	Labia mendiko ibilbidea	Mendi igoera

2.2 - AGOIZKO UDALA

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradunentzako laguntzak
Mariano Garcíaren sortetxea erosi eta balioan jartzea	Gizarte zerbitzuetarako eta DYArako eraikina hobetzeko obrak	Inbertsiorako laguntzak
Nafarroako Gastronomia Zentroaren aurreproiektua	Sareak	Ediziorako laguntzak
Nafarroako parkearen jarraipena egiteko aurreproiektua	Zola ematea	Kultur jarduerarako laguntzak
Eskualdeko kultur etxea	Argiteria publikoa	Agoizko kultur etxea
Profesionalentzako zentroa	Antzinako ur-biltegiko bidea egokitzea	Turismoko gida-liburua
Klub soziala	Udaletxeko igogailua eta teilatua	Herriko ondareari buruzko kartela
Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluri buruzko azterlan etnografikoa	Iratiko goi presioko ur hornidurarako konponbidea (4. eta 5. faseak)	Udalaren informazio eta turismoko bulegoa dinamizatzeko laguntza
Ondare-baliabideen inbentarioa	Udalaren 0-3 urtekoentzako ikastetxea kudeatzeko finantza-laguntza	Agoizko igerilekuetako jardueren programazioan laguntzea
Agoizko plano-gidaliburua	Udalaren 0-3 urtekoentzako ikastetxea handitzea	
Turismo-seinaleztapena hobetze aldera esku hartzeko proposamena	Eskualdeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxean hainbat hobekuntza egitea	
Irairi arrantza-barruti intentsiboa egiteko proiektua	Su-hiltzaile boluntarioen kidegorako bide orotarako ibilgailua	
Agoizko zubi zaharra zaharberritzeko proiektua	Nafarroako Parkea lehengoratzea	
Agoizko zubiari buruzko azterlan historikoa	Udalaren webgunea	
Agoizko zentrala berreskuratuzeko proiektuak	Urbanizaziorako eta esku-hartze artistikoko proiektua, Agoizko hirigunea hobetze aldera	
Agoizko zentralari buruzko azterlan historikoa	Sorospen eta salbamendurako ekipamenduak lagatzea su-hiltzaile boluntarioen kidegoari	
Gendulaingo sarraskijaleentzako elikadura osagarriko gunea		
Agoizko elur-zuloa lehengoratzea eta bidea hobetzea		
Lurzatia urbanizatzea, bertan babes ofizialeko 49 etxebizitza eraikitzeko		

2.3 - OROTZ-BETELUKO UDALA

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradumentzako laguntzak
Dike osagarrien proiektua hobetzeko 42 hobekuntza-proposamen	Orotz-Betelu	Inbertsiorako laguntzak
Arrantzaren inguruko jarduketa	Udal pilotalekua berritzea	Ediziorako laguntzak
Ur termalen inguruko jarduketa	Elektrifikazioa. I. fasea	Kultur jarduerarako laguntzak
Urtegi osagarriko harrera-eremua	Olaldeko ur-konduktzioa berritzea	Berezko jantziak egitea
Ondare-baliabideen inbentarioa	Elektrifikazioa	Orreagarako erromeriari buruzko bideoa
Dike osagarrien udalez gaindiko plan sektoriala	Olaldeko ubideratzea	"Musikarekin edonora" programako kontzertua
Turismo-seinaleztapena hobetze aldera esku hartzeko proposar	Olaldeko biltegirako basabidea	Shareko nazioarteko 1. txapelketaren babesletza
San Adrian elizan argiztapena eta soinua berritzeko proiektua	Olaldeko ur-hartunea hobetzea	
Hilariak balioan jartzeko proiektua	Gas instalazioa	
Antzinako errota balioan jartzeko proiektua	Landa botikina	
"Vivir para vivir" argitalpen etnografikoa	Ur-biltegirako bidea egokitzea	
Orotz-Beteluko fauna iktikolaren interpretazio-gunea	Olaldea:	
Iturria lehengoratztea	Hainbat obra: hilerria, bide publikoa, pilotalekua	
Zaldu-Orotz-Beteluko errota jatztea	Latsarria udal biltegi egitea	
	Ur-biltegirako bidea egokitzea	
	Sareak. Proiektuaren erredakzioa	
	Zola ematea. Proiektuaren erredakzioa	
	Berdeguna egokitzea	
	Pilotalekuko argiteria hobetzea.	

2.4. ARTZIBARKO UDALA

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradunentzako laguntzak
Urtegi osagarriko harrera-eremua: Angordoi	Obra-proiektuak idaztea:	
Urtegi osagarriko harrera-eremua: Artzi	Bideak	
Urtegi osagarriko harrera-eremua: Sagarmín	Ziklo hidrológico	
Urtegiak kanpoko aldean desjabetutako lurzaitien azterketa	Udal ekipamenduak	
Artzibarko Udalaren jatorrizko armaria berreskuratzeko kudeaketak		
Ondare-baliabideen inbentarioa		
Artziko kanpina jartzeko plan berezia		
Turismo-seinaleztapena hobetze aldera esku hartzeko proposamena		
Dike osagarrien proiektua hobetzeko 42 iradokizunaren proposamena		
"Vivir para vivir" argitalpen etnografikoa		
Artzi		
Animalien parke baten bideragarritasunari buruzko azterlana		
Joxepina fauna migratzaileko behatokia		
Itoizko urtegiara doazen bisitarientzako harrera-gunerako proiektuak		
Artziko jauregiari buruzko azterlan historikoa		
	Arrieta	
	Sareen berriztapena	
	Kontzejuaren etxean hobekuntzak egitea	
	Zerbitzuak bideratzea	
	Hilerriko bidea	
	Hilerria egokitzea	
	Bidea egokitzea	
	Arrietako Bentak	
	Hornidurako eta saneamenduko sareak	

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradunentzako laguntzak
Asnotz		
Hizkuntzen herria		
Azparren		
Azparrengo mendiko aterpetxe	Zolaberritzea eta sareak	
ITG-Grekin kudeaketa-lanak egitea Fundazioak betizuen gobernatzelanean laguntza emateari buruz	Elektrifikazioa	
Hilariak balioan jartzeko proiektua	Hilerriko bidean hobekuntzak egitea	
Azparrengo errota/zentral elektrikoa lehengoratzeko proiektua	Hilerrira birzatiitzea	
	Pilotalekua estalitzea	
	Kontzejuaren etxea zaharberritzea	
	Argiteria publikoa	
	Espotz	
	Saneamendua	
	Argiteria publikoa	
	Zola ematea	
	Gorraitz	
	Hornidura eta saneamendu sareen eraberritzea	
	Elektrifikazioa	
	Argiteria publikoa	
	Zola ematea	
	Imizkotz	
	Elektrifikazioa	
	Sareak	
	Argiteria publikoa	
	Hilerriko bidea egokitzea	
	Errepidea egokitzea	
	Lusarreta	
	Sareak	
	Zola ematea	

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradunentzako laguntzak
Nagore		
Urtegi berdeguneen mantentze-lanak		Inbertsiorako laguntzak
Erabiltzaileen segurtasunerako hobekuntzak egitea		Ediziorako laguntzak
Nagoreko etxebizitzetako sektorearen plan partziala		Kultur jarduerarako laguntzak:
San Julian elizan argiztapena eta soinua berritzeko proiektua		Berezko jantziak egitea
Hilariak balioan jartzeko proiektua		Udalen beirateak
Nagoreko ur-esparrurako proiektua		Orreagarako erromeriari buruzko bideoa
Nagoreko 3. sistema orokorrerako proiektua		"Erdi Aroko gure elizen soinua" kontzertua
Nagoreko gaueko fauna interpretatzeko gunea		"Musikarekin edonora" programako kontzertua
Saragüeta		
Erakusketa-gunea: "Saragüeta: gentes de película"	Hilerria egokitzea	Kultur jardueretarako laguntzak
Saragüetako erakusketa-guneko lorategia egitea	Zola ematea	
Ehiza barruti intentsiboari buruzko oinarritzko proiektua	Sareak	
Saragüetako iturria berreskuratzea	Argiteria	
	Kloratzailea	
	Urak bideratzea eta elektrizitate	
	Urak bideratzea eta punpaketa	
	Hilerriko bidea egokitzea	
	Urdirutz	
	Hornidurako eta saneamenduko sareak	

2.5. LONGIDAKO UDALA

Proiektu estrategikoak	Tokiko intereseko obra eta proiektuak	Onuradunentzako laguntzak
Agotz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluri buruzko azterlan etnografikoa	Tokiko azpiegiturak hobetzek proiektua	
Ondare-baliabideen inbentarioa		
Turismo-seinaleztapena hobetze aldera esku hartzeko proposamena		
"Vivir para vivir" argitalpen etnografikoa		
	Aos	
	Zola ematea	
	Aos-Meozko sare nagusiak berritzea	
	Sareak	
	Artaxo	
	Euri-urak	
	Saneamendua-hornidura	
	Zola ematea	
Ekai-Longida		
San Martin elizan argiztapena eta soinua berritzeko proiektua		
Meotz		
Santa Kolonba ermitaren ingurunea balioan jartzeko proiektua	Aos-Meozko sare nagusiak berritzea	
	Hilerriko bidea egokitzea	
Murelu-Longida		
Mureluko zubia lehengoratztea		

